

## Joanes Bakaikoak Lau T'erdian debutatuko du

Erik Jaka izango du aurkari bihar  
Etxarri Aranatzen (17:00) / 14



**Urbasako Igoeraz gozatzera milaka zale hurbilduko dira bihar. 95 pilotu daude izena emanda** / 15

**Sakanako AEK-k 15 talderekin hasi du ikasturtea. Eratutako taldeetan izena eman daiteke** / 11

**Altsasuko Udalak 568.187 euroko lanak onartu ditu. Urtea despeditzerako eginak egonen dira** / 9

**Bertsokabi bertsolari gazteendako sariketan parte hartuko du Ekain Alegre altsasuarrak** / 22



**'Gatibuak' Helena Taberna zuzendari altsasuarraren azken film-dokumentala mustuko dute gaur** / 21



12-13

# ETXARRIKO FERIAK





Tropel buruan Barranka Txirrindulari Taldekoak zeuden, ibilbidea antolatzen.



# Bizikleta festa arrakastatsua

400 txirrindularik egin zuten bat 26. Sakanako Bizikleta Egunarekin. Ziorditik abiatuta, Ergoienara igo eta bertan hamaiketako egin eta gero, Uharteko Arakilen despeditu zen "Sakana Bizikletaz ezagutzen" leloa duen ibilbidea.

**Maidor Betelu / Alfredo Alvaro**

SAKANA

Igandean Sakanako Mankomunitateak antolatutako 26. Sakanako Bizikleta Egunak Sakana zeharkatu zuen. Egun honek toki egin du egutegian eta sakandar askok gorritz markatuta duten data da, udazkenari ongi etorria emateko aproposa, nahiz eta aurtengo eguraldia udazkenekoa baino, udakoa izan.

Goizko 9:00etan hasi zuten ibilbidea Ziorditik. Eguzkia lagun, Etxarri Aranatzera joan ziren txirrindulariak, herrietan jendea batzen zitzaien bitartean. Etxarri Aranatzan, eskuinera egin zuten, Ergoienarantz, Lizarragaraino heltzeko. Lasterketako eremu gogorrena izan zen hori, aldapan gora. Lizarragan merezitako atsedena hartu eta hamaiketako egin ondoren, Dorrao

eta Unanitik pasa zen tropela. Gero Arbizura jaitsi, Lakuntzan eta Arruazun sartu-irteera egin eta San Migel festetan murgildua zegoen Uharteko Arakileraino iritsi zen martxa, helmuga puntuaraino, 39 km eder osatu eta gero.

Haurrak, gurasoak, gazteak, familiak... guztiek egin zuten bat egunarekin, eta beste behin, bizikleta festa arrakastatsua izan zen Sakanako Bizikleta Eguna.



**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
[www.ventanasegoki.com](http://www.ventanasegoki.com)

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

[egoki@ventanasegoki.com](mailto:egoki@ventanasegoki.com)



**Acrylcolor**  
SISTEMA BERRIA  
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea





## "Sakandar asko egun hau iristeko zain egoten dira"

### AMAIA GERRIKAGOITIA

Sakanako Mankomunitateko kirol teknikaria

#### Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Sakanako Mankomunitateak antolatzen du Sakanako Bizikleta Eguna, Barranka, Burunda eta Aralar txirringarritza taldeen eta hainbat entitate eta partikularren laguntzarekin. Amaia Gerrikagoitia egunaren balorazio "oso pozgarria" egin du.

#### Eguraldi ederra izan zenuten.

Goiz goizetik tenperatura ona zegoen, goizeko 9:00etatik muka motzean geunden. Bizikletan ibiltzeko bikain zegoen.

#### Zenbat pertsonen ekin zenioten bideari Ziordian?

300 pertsona inguru abiatu ginen Ziorditik goizeko 9:00etan. Gero beste zenbait talde herrietan gehitzen joan ziren. Guztira 400 pertsonen hartuko genuen parte gutxi gorabehera.

#### Urteroko zifrei eusten zaie. Horrek esan nahi du jende askok urtero errepikatzen duela?

Bai, badaude sakandar asko egun hau iristeko zain egoten direnak, gustura egiten dutelako bidea lagunartean, familian, herritarren artean... probatzen duten askok errepikatzen dute.

#### Ziorditik abiatu zineten gehienak Mank-ek antolatutako autobusetan joan zineten bertara?

Bai. Lau autobus bete ziren Ziordira joateko eta lau kamioi erabili genituen bizikletak jasotzeko. Talde polita atera ginen Ziorditik. Gero jendea joan zen

batzen. Altsasun jende talde eder-  
rra zegoen Iru-Bide parean. Etxarrin, Lakuntzan... beste mardoska bat zeuden zain.

#### Aurten Etxarritik Lizarragara igo zineten. Eremurik gogorrena izango zen hori, ezta?

Bai. Aldapa gora da denbora guztian, hasieran suabeago, baina gero gogorrago. Ez ginen Altsasuko San Pedrotik pasa, eta hori jendeak faltan bota zuen, eta Urdiaindik Iturmendira ere ez ginen pistatik joan, errepide-tik baizik. Izan ere, Ergoienara joaten ginenez, saiatu ginen ahalik eta zuzenenen bertara joaten.

#### Aurtengo hamaiketako Lizarragan.

Bai, pilotaleku eta eliza ondoko leku polit horretan gelditu ginen. Bakoitzak bere ogitartekoa eraman zuen eta antolakuntzatik Aquarius bana banatu genuen. Gero Lizarragatik atera, Dorrao eta Unanutik pasa ginen eta Arbizura iritsi ginen. Han berri-  
duten Kale Nagusi erditik pasa ginen, Lakuntzan berriutako kalea ere ikusi genuen.

#### Arruazutik pasa eta Uhartelara iritsi zineten, helmugara, eta han festak ziren...

Bai, San Migelak ospatzen ari ziren eta girotxoa zegoen. Han elkartu ginen denok berriro, eta autobus eta kamioietarako bidea hartu genuen.

#### Istripuren bat gertatu zen?

Ohiko erorketa eta sendaketa txikiez gain, susto txiki bat izan genuen. Neska bat erori zen eta uste genuen lepouztaia apurtuta izango zuela, baina ospitalera joan eta ez zen hausturarik izan. Hortaz, alde horretatik pozik.

#### Joaquin Beltran de Heredia mekanikariak lana izan zuen?

Bai, azkenean zulaketak izaten dira, gurpilak puztu beharra, holako gauzak.

#### Beraz, Amaia, Bizikleta Eguneko balorazioa positiboa da, ezta?

Bai, pozik gaude. Partaideek ere esan ziguten ibilaldi atsegina dela, gustura egiten dutela. Gero eta familia gehiagok parte hartzen dute, eta emakumeak zer esanik ez, geroz eta gehiagok. Emakumezkoen kopurua gizonazkoenekin parekatzen ari da.

#### Hurrengo urtean Sakanako Bizikleta Egunaren 27. edizioa izango da

Bai, eta data mantenduko dugu; eguraldiari begira hobe da iraila bukaeran egitea. Bestalde, beti daude hobetu daitezkeen gauzak; horiek ere kontuan izan eta aurrera.





ASTEKOA

AINGERU MIKEO

## Klima Aldaketa eta hesi elektrikoak

Aurreko astean Klima Aldaketaren aurkako greba deialdia egin zen mundu guztian, batez ere, ikasle mugimenduak sustatuta. Albisteetan garrantzizko berria izan zen grebaldietan eta manifestazioetan izandako parte-hartzea, Parisen, New Yorken, baita Iruñean ere. Horieta guztietan sona handiena Greta Thunberg ekintzaile gazteak Nazio Batuen Erakundearen esandakoak izan zuen "Ametsak eta itxaropenak lapurtu dizkiguzue" aurpegiratu baitzien haserrekor mundu guztiko agintariei.

Izan ere, etorkizun txiroa aurreikus daiteke lurraren gehiegizko ustiatzeagatik. Dagoeneko, gobernuak planak egiten hasiak dira eta zehaztuta dituzte isurketak murrizteko eta beroketari eusteko lan lerroak; hala ere, inon ere ez da aipatzen ekoizpen eta kontsumo gehiegikeriaren sistema honen aldaketarik. Alegia, ekonomiaren garapena oztopatuko ez luketen neurriak dira horiek denak, hau da, segitu kontsumitzen; hori bai, izan dadila era ekologikoagoan.

## "AMETSAK ETA ITXAROPENAK LAPURTU DIZKIGUZUE"

Horrela, ulergaitzak egiten zaizkit hainbat neurri, esaterako, auto elektrikoak erosteko dirulaguntzak ematearena. Egokia al da 45.000 euroko balioa duen auto bat erosteko dirulaguntzak ematea? Bitartean, mila euro eskas balio duen diesel auto zahar baten

jabea ezinean dabilenean oinarritzko auto bat eskuratzeko.

Aspaldi ohartu nintzen klima aldaketaren arazoari aurre egiten hasiko zitzaioala oligarkiaren agintarietako parte negoziatzaileekin zutenean, baina... burgesiaren neurri ote?

Nolanahi ere, batzuei "etorkizuna" lapurtu diete, baina munduan asko dira dagoeneko "oraina" ere lapurtuta dietenak, eta gure agintarietako horientzat auto elektrikorik ez, horiei hesi elektrikoak jartzen dizkiete mugetan guri enbarazurik ez egiteko. Gainera, haien lurraldeetan nozitzen ari da gehien Klima Aldaketa.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitululua bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## HARA ZER DIEN

### Apostu etxeak eta online jokoa

#### SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK

Badago jokoarekiko adikzioa 80. hamarkadako heroinarekiko adikzioarekin konparatzen duena. Garai hartan gazte asko izan ziren sustantzia horren menpe erori zirenak, eta egun, dirudieenez, gazte asko dira jokoarekin -online jokoa eta kirol apustuak- adikzioa azaltzen ari direnak. Heroinarekin duen ezberdintasuna da egungo adikzio hau iku-sezina dela, ez baitu garunean kimikoki eragiten beste sustantziek eragiten duten bezala.

Atentzio pixka bat jarriz gero, berehala konturatu gaitezke joko mota honek gure artean presentzia handia duela. Nafarroan apustu etxe asko ireki dituzte. Jolasteko Makinen Elkartearen Federazioko esanetan Nafarroa da, Euskal erkidegoaren ondoren, apustu etxeen gastu gehien duen komunitatea.

Egoera honen aurrean, badira kalera protesta egitera ateratu direnak eta baita apustuen kontrako asanbladak sortu dituztenak. Helburua ez da apustu etxe hauek

ixtea, legalak baitira. Lortu nahi dutena, horrelako toki gehiago ez irekitzea da. Beste kasu batzuetan, Udalek negoziatu hauekiko ordenantza zehatzak onartu dituzte. Noainen, adibidez, adostu dute mota hauetako lokalak ezin izango direla heziketa, kirol, kultura eta jolaserako zentroetatik 400 metrotako erradio batean ireki. Izan ere, leku askotan, apustu, etxe edo joko etxe hauek ikastetxeetatik gertu ireki izan dira.

Lokal hauekin gertatzen ari den beste gauza bat da adinez txikikoei sartzen uzten dietela eta baita jolasten ere, eta honen isla da Aralar Ludopaten elkartearen laguntza eskatzera joaten ari den perfila aldatzen ari dela nabaritu dutela. Lehen, laguntza bila joaten zirenak txanpon-makinetera engantxatuta zeuden 45 urte inguruko gizonezkoak ziren; hauen jokabidea urteetakoak izaten zen, adikzioa izan arte. Orain, ordea, aurrekoei erruletara eta kirol apustuetara jokatzeko duten gazteak gehitu zaie. Azken hauek online jolasten dute gehienbat, eta adik-

zioa epe motz batean sortzen da, bizpahiru urtetan. Badirudi arazoak azkarrago sortzen direla, jokoan jartzen den diru kantitatea txanpon-makinetera jokatzeko dena baino handiagoa delako.

Adituek diotenez, apustu etxe hauek erdi eta behe mailako-klaseko jendea bizi den tokietan finkatu ohi dira, jokalariek modu errazean dirua egiteko motibazioa dutelako. Hau gutxi balitz, jende gazte eta ezkongabe asko dagoen zonaldeak bilatzen dituzte, hauek ez dutelako familiek dituzten loturak eta betebeharrak.

Adikzio mota hau sufritu duen pertsona baten esanetan "jokoak burua galarazten dizu eta diru gehiago irabazteko ilogikoki pentsatzen hasten zara".

Terapia lanean aritzen direnen esanetan, egoera oso larria bihurtzen den arte jokalariek ez dute laguntza eskatzen; batzuetan familiarik izaten dira laguntza eskatzera doazenak. Elkarte hauetan akonpainamendua eta elkar-laguntza izaten dira terapia tresnak. Sustantziekiko egiten den terapiarekin alde berdin bat du, lehenengo fasea, alegia. Ondoren terapiak bereiztu egiten dira.

**Osoa: guaixe.eus**



## OBJEKTIBOTIK

### Oiloak pasioan Irurtzunen

Irurtzungo oiloak kaleetatik paseatzera ateratzen dira, horrela aurkitu ditugu bidegurutzearen berdegunean. Ez dakiguna da herria handia egiten duten denda txiki horiek ezagutzera aterako ziren edo berdeguneetan bizi diren xixareak inguruko goxoenak diren.



**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

**Koordinatzailea:**  
Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

**Diseinu zerbitzua:**  
GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua  
gk@gkomunikazioa.eus

**Administratzailea:**  
Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

**Kolaboratzailea:**  
Munia El Marhoum Iruretagoiena  
**Zuzentzailea:**  
Maria Luisa Zelaia

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

**Erredakzioa:**  
Maider Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

**Maketatzailea:**  
lune Trecet Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

**Publizitatea:**  
Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

**ARGITARATZAILEA:**  
Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675



**Nafarroako Gobernua**  
**Gobierno de Navarra**



# Epaiekin hizkuntza irizpideak bertan behera

Nafarroako administrazioan euskara arautzen duen 103/2017 foru dekretua edukiz hustu du Nafarroako Justizia Auzitegi Gorenak. Lan publikora sartzeko euskara meritu gisa baloratzeko betebeharra kendu eta borondatezko bihurtu du

## SAKANA

Aurreko legegintzaldian euskararen alde Nafarroako Gobernuak egindako pauso garrantzitsuetakoak izan zen Euskararen Dekretua, Euskararen Legea oinarri hartuta egin zena. Haren bidez gobernuak administrazioarizena bait betebehara ezarri zizkion arreta euskaraz bermatzeko. Dekretuari helegitea aurkeztu zioten UGTk, SPA, Afapna, Sindicato Medico de Navarra eta Satse sindikatuek. Eta asteartean eta asteazkenean epai bana eman ditu Nafarroako Justizia Auzitegi Gorenak dekretua hustu dutenak, 2003an UPNk onartutako dekretuaren garaira bueltatuz.

Epaiak eremu misto eta ez euskaldunean aparteko eragina du, baina eremu euskaldunari ere eragiten dio. Izan ere, 2017ko araudiak foru administrazioaren zerbitzu zentralak. Zonifikazioa "de facto" gainditzen zuen eta nafar guztiendako euskarazko arreta bermatzen zuen hizkuntza irizpide komun batzuk ezarritak. Zerbitzu zentraletan hizkuntza profila jakin bat zehaztuta dute lanpostu batzuk. Beste batzuk ez eta horien oposizio lehiaketetan euskararen ezagutza meritutzat hartzen zuen dekretuak. Baina epaiaren arabera euska-



Euskararen ofizialtasunaren aldeko manifestazioa deitu zuen Kontseiluak iaz.

razko arreta jasotzeko eskubideak erabiltzaile bakoitzaren bizitokiaren arabera izan behar du eta dekretuan jasotakoa indarririk gabe utzi du. Beraz, Iruñera jotzen duen sakandarrak euskarazko harrera izan behar luke, baina ez, esaterako, Zizur Nagusikoak edo Lodosoakoak.

Euskarabidea hasi zen gobernu departamentuetarako euskara planak martxan jartzen, baina epaiak debekatzen ez baditu ere haiek garatzeko aukerarik ez du ematen, langile euskaldunak behar baitira horretarako.

Bestetik, medikuen eta erizainen sindikatuek eremu euskaldunerako euskararen ezagutzaren meritua "neurrigabeak" zirela eta horiek kentzeko eskatu zuten, "euskara ez dakiten hautagaien sarbidea murrizten duelako eta meritu eta gaitasun berdintasun printzipioaren kontrakoa baita". Baina epaiak atzera bota du eskaera, "ez dutelako neurrigabetasuna azaltzeko inolako parametrorik aurkeztu".

Nafarroako Parlamentuan oposizioan dauden bi alderdiek jarriera desberdina hartu dute.

Navarra Sumatik esan zuten, "dekretuak herritarren arteko aukera berdintasuna hautsi zuen, epaiak Gobernuaren inposizioa zuzentzen du". EH Bilduk epaia "izugarritzat" jo zuen eta Euskararen Lege berri bat aldarrikatu zuen. PSN epaiarekin pozik agertu da, ez horrela Geroa Bai, Ahal Dugu eta Izquierda-Ezkerra. Momentuz, ez dago jakiterik Nafarroako Gobernuak kasazio helegiterik aurkeztuko duen. Foru exekutiboko bozeramaile Javier Remirezek esan duenez, "Gobernuak eszena-toki posible guztiak aztertuko ditu". Epaiak administrazioen borondatearen esku utzi du lanpostuetarako euskara meritu gisa baloratzeko eta kartelak eta seinaleak elebitan jartzea. Beraz, Nafarroako Gobernuak nahi balu euskara baloratu eta erabiltzeko aukera luke, baina ez betebeharra.

## Erreakzioak

Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluko idazkari nagusi Paul Bilbaok esan duenez, "oso argi uzten du egungo Euskararen Legeak horrelako ebazpenei atea zabaltzen diela". Gaineratu duenez, "zalantzarik gabe, erabaki honek zailduko du euskaraz bizi nahi duten nafarren eskubidea bermatzea. Gainera, arbuia garria da euskararen ezagutzari muzin egitea, baina, aldiz, Nafarroan berezkoak ez diren hizkuntzen ezagutza baloratzen jarraitzea". Epaiak euskararen erabilera ez duela debekatzen gaztigitatu ondoren, gobernuari deia egin zion Bilbaok: "borondatea izanez gero, lasai aski para ditzake euskaraz idazkiak, komunikazioak, bide-seinaleak etab. Azpimarratu nahi dugu epaiak berak onartzen duela elebitasuna hautazkoa izan daitekeela. Beraz, Gobernuak

ez du oztopo juridikorik zerbitzu zentraletan ere euskararen erabilera bermatzeko". Hala ere, Kontseiluko eledunak azaldu zuenez, "epaiak agerian utzi du Nafarroan beste lege bat beharrezkoa dela".

Azken hori nabarmendu du ELA sindikatuak, "bakarrik zonifikazioa gaindituko duen lege batek berma ditzake euskaldunon eskubideak". Dekretua "oso motza" bazen ere soilik ELAren babesa jaso zuela gaztigitatu du. Foru administrazioan ordezkarik gehien dituen LABendako "onartezinak" dira epaiak. "Indarrean dagoen legeak eta berau aldatu gabe sortutako dekretuek ez dute balio nafarron hizkuntza eskubideak bermatzeko. Beharrezkoa da euskararen lege berria".

UGTrendako epaiak "positiboak" dira. Dekretua "Nafarroako errealitate soziolinguistikoa erekin bat ez zetorren eta funtzio publikorako sarbiderako berdintasun eta gaitasun printzipioak urratzen zituen, herritarren % 90rendako desabantaila izanik. Koofizialtasuna era orekatuagoan interpretatu behar da, zentzu gehiagoz". CCOOtik gogorarazi zuten bere garaian gaztigitatu zutela "neurrigabekeria batzuk" zeudela, "batez ere balorazioei zegokienean". Gaineratu zuten, "euskara sustatzearen aldekoak gara, baina ezin da politikoki erabili eztabaida hain polarizatuta dagoenean". Afapnak dekretua "berehala indarririk gabe uztea" eskatu zuen.

**ELEBIDUNEN KOPURUA HIZKUNTZA EREMUEN ARABERA ZEHATZU BEHAR DA EPAIEN ARABERA**

GOIZERO  
10:00-12:00

EGUN ON  
SAKANA

107.3 FM  
**beleixe**  
ZUZENEAN  
ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE  
ENTZUTEKO  
GUAIXE.EUS

irratia@beleixe.eus  
ZURE NEGOZIOAREN  
ERAKUSLEIHOA,  
BELEIXE IRRATIA.  
JARRI HARREMANETAN  
GUREKIN!  
948 567 074





Fededunak aingerua gurtzen. NEREA MAZKIARAN ZELAIA

## Aralar, hitzordu seinatu batetik bestera

San Migel eguna ospatu zen igandean eta kofrade, anai-etxeetako eta ongileen oroimeneko meza etzi

### SAKANA

Makina bat jendek bat egin zuen San Migel egunez Aralarko santutegian. Debozioari eta ohiturari, igandea izateak eta eguraldi bikainak horretan lagundu zuten. Mendiaren inguruko ibarretatik eta Euskal Herriko hiriburuetatik joandako jendea elkartu zen santutegian. Fededunak goizean-goizetik abiatu ziren santutegirantz. Goizean eta eguerdian lau meza izan ziren eta beste bi arratsaldean. Bakoitzen akaberan Aralarko aingeruaren irudia gurtzera eskaini zuen Mikel Gartziandia apaizak. Hori santutegiaren irteeran egin zuen, jendea erosoago ibiltzeko. Garziandiarekin batera mezetan Arciboko seminarioko zuzendari Eduardo Torres Moreno eta seminarioko bi ikasle izan ziren.

Elizkizunen aurretik, edo ondoren, asko izan ziren santutegiaren sarreran dauden Goñiko Teodosiorenak omen ziren kateak hartu, haien azpitik hiru buelta eman eta ondoren musu eman zietenak. Hezurretako minen kontra. Jendea txanda iristeko zain egon zen.

### Defuntu meza Aralarren

San Migel egunaren biharamunean, irailaren 30ean, historikoki meza nagusia egiten zen Aralarko santutegian. Elizkizun hura azken urtean hildako Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiako, Anaitasuneko kideen eta Ongile guztien oroimenez egiten zen. Aurten data seinala-

tu hori astelehena zenez, jendearen parte hartzea errazteko igandera aldatu da meza nagusi hori, 12:30ean. Aurreko urteetan bezala, elizkizuna Schola Gaudemus abesbatza gregorianoak edertuko du. Korala berriro 17:00etan entzuteko aukera izanen da, bezperak kantu gregorianoekin girotuko ditu. Hala nahi duenak Aralarko aingeruaren irudia gurtzeko aukera izanen du.

Aralarko santutegian lastaileko igandeetan eginen diren meza nagusi guztietan abesbatza bat izanen da kantari. 12:00etan kontzertu txiki bat eskainiko dute eta 12:30ean elizkizunean parte hartuko dute. Nafarroako Abesbatzen Elkartearen elkarlanari esker honako abesbatzak entzuteko aukera izanen da Aralarko santutegian: Iruñeko Ipardoinua hilaren 13an, Iruñeko La Asuncion abesbatza hilaren 20an eta Atrrabiako San Andres abesbatza hilaren 27an.

### Anaitasuna

Aralarko aingeruaren irudia bidaiaria da. Santutegia utzi eta Nafarroako geografian barna, baita Gipuzkoan ere, 300 bat herri bisitatzen ditu urtero. Herri bakoitzean San Migelen anaiaren etxe bat dago eta han hartzen dute aingeruaren irudia eta harekin doazenak (garai batean mandazaina eta mandoa baita). Etxea nagusiz aldatzen bada, hura izanen da San Migelen anai berria. Guztiak anai kideak edo anaitasuneko kide dira.

# Gaztetxeak 29 urte beteko ditu bihar

Asteartetik bihar arteko egitaraua prestatu du Altsasuko Gazte Asanbladak Socorro etxea zena okupatu zela gogoratzeko. Urteurren eguna, bihar, eguerditik ordu txikiak arteko egitaraua prest dago

### ALTSASU

Altsasuko gaztetxearen urteurreneko egitarauak aletzen segitzen du gaur. Atzo, gaur eta etzi, ametsetan sinetsi letoa aukeratu Altsasuko Gazte Asanbladak (AGA) gaztetxearen 29. urteurrenerako. AGAko kideek asteartetik atzora arte gaztetxean egiten ari diren auzolanean parte hartzera deitu zuten. Bestetik, asteazkeneroko ohiko batzarra lau paretan artean egin beharrean Foru plazan egin zen herenegun. Aldarrikapenak ere tokia izan zuen eta Imanol Salinas LABeko sindikalistaren aldeko kontzentrazioa egin zuten atzo. Horren ondoren Gazteewood film laburren lehiaketa gogora ekarriko zuen merienda izan zen. Lehiaketa horren atzera begirakoa egin zuten 2018an, aurten egin denaren abiapuntu izan zena.

Gaztetxearen urteurren ospakizunetan klasiko bat da kalderete txapelketa, larunbat goizean Foru plazan jokatu dena. AGA-



Gaztetxean izandako kontzertu bat.

tik gaztigatu dutenez, haiek mahaiak, bankuak, menajea eta eltzekoa berotzeko beharrezko guztiak jarriko dituzte. Jatekoa gasarekin prestatu nahi dutenek eurek eraman beharko dituzte tresnak. Edaria gaztetxearen

kontu izanen da, baina ez ogia. Azkenik, AGAko kideek 25 urteurrenerako ateratako zapiak janzteko deia egin dute.

## Egitaraua

### Lastailak 4, ostirala

- 17:00 Haur txokoa, plazan.
- 18:30 Txokolate-jana, pl.
- 20:30 Auzatea, gaztetxean.
- 22:30 Txikiren bakarrizketa, gaztetxean.

### Lastailak 5, larunbata

- 11:00 Kaldereteen prestaketaren hasiera.
- 12:00 Txupina.
- 14:30 Kalderete txapelketa. Ondoren, jolasak, zumbapoteoa, Altsasuko kuadrillen elektrotxaranga...
- 22:00 Magrak, gaztetxean.
- 23:30 Erromeria, gaztetxean: Ingo al deu?



## Pinpilinpauxarena onena

Altsasuko Peñek eta Altsasuko Dendari Elkarteak IV. Festetako erakusleho lehiaketa antolatu zuten. Peñen Facebook profilaren bidez botoa eman zutenen % 36,4k Pinpilinpauxa dendaren erakuslehoia jo zuten onena. M<sup>a</sup> Jesus Alonso Fernandezek peñen aldetik

gazta eta ardo botila jaso zituen sari gisa. Eta bozketan parte hartu zutenen artean peñek ADEko dendetan gastatzeko 30 euroko hiru txartel zozketatu zituzten: Edurne Etxeberria Barrena, Kristina Santano Cid eta Puy Imaz Ollokiegi.





# HEMEN DA! SAKANAKO GIDA 2020

Iragarri nahi izanez gero edo datuak berritu nahi izanez gero  
jarri harremanetan [publi@guaxe.eus](mailto:publi@guaxe.eus)  
948 564 275

**ZURE NEGOZIORAKO LEIHOA**





# Pentsio duinen aldeko aldarrikapenaren segida

Larunbateko manifestazioan 500 bat pertsona elkartu ziren. Mugimendu feministak eta gazte asanbladak bat egin zuten deialdiarekin. Adinduen Nazioarteko Egunarekin batera, asteartean, kontzentrazioak izan zirne Irurtzunen eta Altsasun

## SAKANA

Sakanako Pentsiodunen eta Adinduen Koordinakundeak deitututa pentsio duinak aldarrikatzeko manifestazioa egin zen. Pentsioak zer diren gogorarazi zuten: "bizi kalitatea bermatzen duen erretiroa gozatzeko asmoz, urte luzez lan egin duten pertsonen bizibide eta duintasuna dira. Gobernuak urtero handitu beharko lukete Kontsumo Prezioen Indize errearen arabera".

9 milioi pertsona baino gehiago dira pentsiodunak eta erretiratuak. "Ondo irabazitako bizi-modu duinaren eskubidea dugu pertsonak, eta ez unean-uneko gobernuaren txotxongiloak". Horregatik, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eta 1.200 euroko lanbide arteko gutxieneko soldata exijitu zituzten. "Toledoko ituna berriro abian jartzea eskatu zuten, "pentsioen inguruko estatu akordioa lortzeko. Eta akordio hori konstituzioan sar dezatela, aurretik gertatutakoa



Pentsio eta soldata duina eskatzen.

errepika ez dadin". Mariano Rajoyren gobernuak "pentsioei zuzendutako 60.000 milioi euro bankuei eman zizkiela gogorazi zuten. Eta esan zuten, "ez Rajoyk ez Pedro Sanchezen gobernuak ez dutela pentsiodunen

arazoetan ardurarik. Horregatik, mobilizazioetan jarraituko dugu".

Altsasuko gazte asanbladako ordezkariak manifestazioarekin bat egin zuten, aurrena, "langileklasearen beste sektoreei gure elkartasuna adierazteko". Eta, atzena, "langilegoaren batasuna aldarrikatzeko". 1.080 euroko pentsioa "bizi duin bat izateko minimoa da hori. Bizi osoa lanean egon ondoren, bizi duin bat merezi duzue". Gazteek gaineratu zuten, "ezinezkoa da pentsio duinak egotea soldata duinik gabe. Gaurko gazteon soldata miserableak, biharko pentsio miserableak izanen baitira".

Aurreratu zuten, "gure eskutan dago horrekin bukatzea. Beste mundu bat posiblea eta beharrezkoa da, baina ez dugu etxean itxoi ten lortuko". Horregatik, emakumezko prekario edota pensionistak bat egitera deitzearekin batera, antolakuntza eta borroka aldarrikatu zituzten.



Sareko kideek zubi ondoan egin zuten aurkezpena. UTZITAKOA

## Sareren zubigintzarako deia Iruñetik zabalduko da

Larunbatean, 12:00etan, Iruñeko Oblatas eta Santa Engraziko zubiak lotuko dituen giza-katera deitu dute

## SAKANA

Sarek Iruñeko *Zubiak presoak etxeratze* ekimenaren bidez bi zubi esanguratsu giza kate baten bidez batuko ditu bihar. Antolatuzaileek azpimarratu nahi dute "presoak etxeratze ezberdinen arteko zubi-lanaren garrantzia". Zubiak lotuz Sarek adierazi nahi du "nafar jendartea izan behar dela presoan etxeratzea gauzatzeko eta konponbidean urratsak biderkatzeko zubiak eraiki behar dituen: denok leku beretik bulatzatu behar dugula!"

Sarekideen iritziz, "herritarrok izan behar dugu presoak etxera-

tzeko zubi, konponbidearen zein elkarbizitzaren alde zubiak eraikitze prest gauden herritar aktibo. Presorik gabeko herri baketsu eta justuago batean amesten dugun herritarrak izan behar gara bide horretan aktibo". Arlo guztietan "aktibo horiek biderkatzeko" deia egin dute Sarekideek, "gehiago izateko asmoz eta bai gure helburuetara azkarago iristeko asmoz ere". Horregatik, "presoak etxeratze eta konponbidean urratsak emateko zubi izan behar gara iku-sarazteko", Sarek jendeari "aktibatze" deia egin dio.



## Kataluniarekin elkartasunez

Kataluniako independentziari buruzko erreferenduma egin zela bi urte bete ziren asteartean. Askapenak kontzentrazioa deitu zuen Altsasun. Esan zuten, "desobedientzia ariketa ikusgarria egin zuen herri katalanak, Estatu espainiarraren debekuari aurre eginez Herriaren determinazioa eta auto-antolakuntza garaipenerako giltzarri direla erakutsi zuten".

## EHko Erdiguneko Martxako bazkarirako izena ematea zabalik

Independentistak sareak, Iratxo Mendi taldeak eta Sakanako Mendizaleak taldeak euskal herritartasuna aldarrikatzeko Euskal Herriko Erdigunera martxa antolatu dute hilaren 13rako. Hiru zutabe aterako dira: 08:15ean Unanukoa, herriko plazatik, 08:45ean Senosiaingoa, goiko parteko askatik, eta 09:30ean Irañetakoa, Basokoe-txea bordatik. Hiruak 11:30ean bat egingen dute, ekitaldian. 15:00etan, herri bazkarian bilduko dira Irañetakoa bordan (helduak 12 euro, haurrak 6 euro). Ostegunera arte eman daiteke izena: [www.independentistak.eus](http://www.independentistak.eus), (+34) 620 190 277 edo 943 561 853.

## Espainiako armada bisitan izan zen Uharte Arakilen

Militarren kamioi eta ibilgailu txikiz osatutako segizio bat agertu zen Uharte Arakilen atzo, 07:30ean. Lekukoek jakinarazi zigutenez, 4 edo 6 kamioi, 2 jeep ambulanziaz, komunikazioetarako beste 2 jeep-ek, soldaduz betetako mikrobusak eta militarren segizioak ixten zuen jepea Itsesi auzoan gora egin zuten eta ibarrera etortzen direnean ohi denez, mendira jo zuten, Berriarantz, ariketa militarrek egitera.

Bigarren aldia da aurten Espainiako armadak Sakanan halako ariketak egiten dituen. Aurrekoa Irurtzun inguruan izan zen garagartzaroaren 3an eta ariketa militarrek egin zituzten.

## Pozueta EH Bilduko hauteskundeetan hautagai atzera ere

Espainiako Kongresurako eta Senaturako hauteskundeak egingen dira azaroaren 10ean. EH Bilduko Mahai Politikoko apirilko hauteskundeetako hautagai berak zerrendaburu izatea proposatu zuen eta EH Bilduko oinarriek berretsi dute. Bozkatu zutenen %95ek baiezkoa eman zuten hautagaitzei.

Beraz, Bel Pozueta Nafarroako EH Bilduko Kongresurako zerrendaburu izan da atzera ere. Udaberriko hauteskunde deialdian 408 botogatik Pozuetak ez zuen lortu Madrilen eserlekua. Zenbaketa estua izan zen hauteskunde gauean eta, azkenean, dantzan zegoen parlamentarioa PSNrendako izan zen.





Haurrak eta amak Intxostiapunta ondoko parkean. ARTXIBOA

## Foru plazan haurrendako jolas parkea eginen du udalak

Parte-hartze aurrekontuko 40.000 euroak horretara bideratuko dira. Elizako erlojuaren azpian egonen da

### ALTSASU

Altsasuko Udalak Foru plazan haurrendako jolas parkea egiteko aurrekontu aldaketa onartu zuen irailaren 25ean, Geroa Bairen aldeko eta EH Bilduren kontrako botoekin. Diruzaintzako 40.000 euro bideratuko dira. Javier Ollo Martinez alkateak aitortu zuen aurten askoz ere proposamen gutxiago aurkeztu zirela. Prozesuaren araudiari eta legediari jarraituz, aurkeztutako 4 proposamenetatik 3 baztertu zituen udalak, diruzaintzako poltsan dagoen dirua zertara bideratuta mugatuta baitute udalek. Inbertsioak izan behar dute.

### Iritziak

EH Bilduko Javier Paz Miñok azaldu zuenez, "parte hartze aurrekontuak altsasuarrek udal bizitzan parte hartzeko bitarteko bat da, ekarpenak egin eta erabakiak hartu ahal izateko. Prozesua nola izan den ikusita parte hartze prozesua indargabetu egin da. Jendeari diru hori zertan gastatu erabakitzeak aukera kendu zaio". Gogorarazi zuen Parte-Hartze Batzordearen erabakiari helegitea aurkeztu ziotela hainbat aukera proposatuz: deialdia eman gabe deklaratea, "gutxien gustatzen zitzaiguna"; proiektu gehiago aurkezteko epea zabaltzea edo batzordearen oniritzia jasotako proiektua herritarrek bozkatzea, nahi zuten edo ez. "Aukeretakoa bat bera ere ez da kontuan izan. Deialdiaren oinarriak literalki hartuta herritarrek eman behar dute iritzia

eta udalak hartu du erabakia. Ez zaigu modu egokiena iruditzen".

Ollok azaldu zuenez, proposamen batek ez zuen araudia betetzen, bestea, teknikoki ez zen inbertsio bat. Eta bik egin zuten aurrera, onartutakoa eta estalpedun haurrendako jolas-parkea proposatu zuena. "Azken horrek ez zuen memoria aurkeztu. Proposatzaileari deialdiko araudia bete eta memoria aurkeztea eskatu zitzaion eta ez zuen aurkeztu". Alkateak esan zuenez, proposamen bakarrarekin gelditu ziren. "Parte-hartzea prozesuaren izaera loteslea delako inbertsio hori eginen dugu. Hala ere, Ollok gaineratu zuen: "2020ko deialdian halako egoerak kontuan izan beharko dira deialdian".

Pazek gaineratu zuenez, udalak onartu zuen proiektua zinegotzi batek aurkeztu zuen. "Legitimitate guztia du. Baina gure ustez prozesu horien bidez herritarrei eman nahi zaie aukera, ez dituzte guk zinegotziok ditugun bitartekoak". Ollok 2020rako deialdian zinegotzi batek bere kabuz udalari proposamena egin diezaiokeen edo ez aztertu beharko dela esan zuen.

Azkenik, Maixabel Lopez de Uralde Muñozendako parke bat jartzeko tokirik egokiena ez dela, "mundu guztia handik pasatzen da festetan". Eta gaztigatu zuenez, "umeendako jolas parkea izanen da, baina haur koxkorragoendako ez dugu". Alkateak esan zuenez, Zumalakarregikoan zati bat halakoa izanen da.

# Ibarrea industrialderako saneamendu sarea

Lanak eman berri ditu eta heldu den astean hastea espero da. Industrialdeko hondakin urak gaur egun ibaira botatzen dira eta hori saihestu nahi da. Udalak beste bost inbertsio bideratu ditu, 568.157 euroko inbertsioa guztira

### ALTSASU

Ibarrea industrialdeko hondakin urak jasotzeko saneamendu sarea Apezetxea Anaiak SL enpresak eginen du 242.837,02 euroren truke (BEZ kanpo). Hala erabaki du Altsasuko Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak. Lanak heldu den astean hasiko dira eta azaroa bukatu aurretik despeditu behar ditu enpresak. Saneamendu sarea lanen aurreneko fasea izanen da. Ondoren sare hori Geltoki auzoko azpiegiturarekin lotzeko lanak eginen dira, Ibarrea industrialdeko hondakin urek ibaian bukatu beharrean araztegia bukatzeko.

Aurreikusitakoaren arabera Ibarrea industrialdearen hasieran biltegi bat eginen da eta kale guztian aurrera hari lotuta egonen den saneamendu sarea eraikiko da. Lantegietako eta etxeetako loturak egin beharko dituzte. Gaur egun industrialdearen sarreran bada biltegi bat eta 250 metrotako luzera duen banaketa sarea. Kolektore berria egun dagoen biltegiarekin lotuko dute. Bigarren fasean han jasotako hondakin urak Geltoki auzoko ur-biltegiara eramateko lanak eginen dituzte. Euri urak jasotzen dituen 180 bat metroko sarea dago industrialdearen akaberan, besterik ez. Euri urak jasotzeko



Altsasuko ikuspegia, goian Ibarrea industrialdea.

sarea egiteko asmoa ere badago, baina aurrerago eginen da.

### Lan gehiago emanak

Erkuden eta Bakea kaleetako etxartean 57 ibilgailurendako aparkalekua eginen du Apezetxea Anaiak SL enpresak. Zoruan asfalto zabaldu eta argiteria jarriko du 137.021,64 euroren truke (BEZ barne). Bestetik, Ondarria industrialdeko argiteria publikoko kanalizazioaren berritzea Promociones y Pavimentaciones Balgorza SAK eginen du eta udaletik 65.515,51 euro

jasoko ditu (BEZ kanpo). Montajes, Mantenimiento y Automatismos Electricos Navarra SL enpresak argiteriako bi lan eginen ditu Altsasun: Zelandi eskola publikoan LED argiak jartzea (gobernuaren 12.050,83 euroko diru-laguntza) eta Isidoro Meletero eta Ermita kaleetako argiteria publikoa berritzea (17.141,53 euro, BEZ kanpo). Azkenik, etxegabeen aterpe berriko altzariak Aratz Proyect SLL jarriko ditu 17.472,03 euroren truke (BEZ kanpo). Lan guztiak urtea despeditu aurretik eginak egon behar dute.

## Plan Estrategikoarekin segitzeko

2018-2028 Bakaikuko Plan Estrategikoa egiteko prozesua duela urtebete abiarazi zen eta otsailerako hiru lehentasun definituta zituzten bakaikuarrek: auzolana, eskolak izandako eraikina eta etxebizitza. Herri galdeketa bidez auzolana arautzen duen ordenantza onartu ondoren, Bakaikuko Plan Estrategikoaren Jarraipen Batzordearen bilera

izanen da gaur, 19:00etan, udaletxeko goiko aretoan. Bakaikuarrei joateko gonbidapena egin diete. Lehentasunezko markatu ziren bi gai izanen dira hizpide: eskolak eta etxebizitza. Horiekin batera bakaikuarrek bestelako gaiak eraman ditzakete.

Bestetik, alkateak eta zinegotziek jakinarazi dute udalaren informazioa whatsapp aplikazioaren bidez jasotzeko aukera dutela bakaikuarrek. Horretarako, 622 268 161 telefonora mezua bidali behar da aurrena.





# ML modako Zufiarreren lan-ibilbideari aitortza

Maria Luisa Zufiurre Venturak emakumezkoen enpresa esperientziarik onenaren saria jaso du II. Nafarroako Lan Autonomoaren Feriaren barruan. Nafarroako Gobernuak autonomoek egindako lana aitortu zuen

**Eneida C / Alfredo A** ALTSASU

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak lan autonomoan diharduen pertsonaren kanpo zein barne posizionamendua eta ikusgarritasuna hobetzeko 2017-2020ko Lan Autonomoaren I. Plana egina du. Horren harira bigarren urtez Nafarroako Lan Autonomoaren Feria izan da Iruñean asteburuan. 125 standetan euren jarduna azaldu zuten profesionalak. Gainera, Lan Autonomoa Aitortzeko 2019ko Sariak banatu zituzten. 37 hautagaitza aurkeztu ziren eta Lan Autonomoaren Nafarroako Kontseiluak 16 pertsonen lan-ibilbidea saritzea erabaki zuen. Horien artean dago ML moda dendako Maria Luisa Zufiurre Ventura. 71 urteko altsasuarrak emakumezkoen enpresa esperientziarik onenaren saria jaso zuen.

Leire eta Asier Gonzalez Zufiurre larunbatean saritutako ML modako Maria Luisaren alaba eta semea dira, eta dendariak. Sariak haiekin aritu gara. **Zeinek antolatu du zuen ama saritu duen sariketa?**

**A.** Nafarroako Gobernuak antolatzen du. Cederna-Garalurrek proposatu zuen sariketara ama. **L.** Haiek memoria bat aurkeztu zuten. Esaten zuten bere ibilbidea



Maria Luisari Manu Aierdi kontseilariak eman zion oroigarria. UTZITAKOIA

nahikoa interesgarria, polita zela.

**A.** Amaren istorioak ematen du. **Eta zein da zuen amaren lan-ibilbidea?**

**L.** Ama jostun gisa 14 urterekin hasi zen lanean, etxean. Jostun eskola jarri zuen. Jende nahikotxok jantziak eskatzen zizkion. Beti lanez gainezka zegoen. Eta bururatu zitzaion 90eko hamarkadan, gutxi gorabehera, oihal denda bat irekitzea. Ama beti izan da oso ausarta eta aurrerakoia. Nahiz eta aitak eta bere gurasoek esaten zioten ez zela

ongi aterako, denda ireki zuen. Gizonezkoendako ML denda dagoen tokia oihal denda zen. Han lan asko zuen.

**A.** Berak neurriak hartzen zituen eta jantziak egiten zituen.

**"AMA BETI IZAN DA OSO AUSARTA ETA AURRERAKOIA. ETXEAN JOSTU, ETA DENDA IREKI ZUEN"**

**B.** Berak moztu eta probatzen zuen eta bost emakumezko laguntzen zioten.

**Emakumezko inguratuta egoten zen denda.**

**L.** Jende pila ikasten egoten zen, ama laguntzen, harekin lanean.

**Oihal dendatik...**

**L.** Kristinak, gure ahizpak, diseinua ikasi zuen. Eta berarekin egindako arropa salgai jartzea erabaki zuten. Arropa konponketak egiten zituenez... Pixka bat nahasten hasi ziren, oihalak eta arropa.

**A.** Pitteka-pitteka hasi ziren oihalak kentzen eta egindako arropak jartzen. Lan gutxiago eta lan errazagoa.

**Beharakada ere etorri zen!**

**L.** Bai. Gure belaunaldiak ez du josten ikasi. Pixka bat aldatu da. Kristinarekin arropa saltzen hasi zen. Nik merkataritza eta marketing-a ikasi nuen. Ni ere denda sartu nintzen. Denda pixka bat txikia gelditu zela ikusi genuen eta beste denda handia erostea erabaki genuen. Ordurako ez zegoen oihalik, dena arropa zen. Denborarekin ikusi genuen beheko solairua baliatzeko genuela, eta beste atal bat zabaldu genuen.

**Amak hor jarraitu du, ezta?**

**L.** Bai. Eta beti bera hau edo hura egin behar dugula esaka.

**A.** Beti ausarta.

**L.** Oihal denda izandakoan gizonezkoen arropak jartzea erabaki genuen. Asier etxean zegoen, arroparena asko gustatzen zitzaion... Ausartu zen eta gurekin dago.

**A.** Duela hiru urte hasi nintzen. **Halako ibilbidearekin zer dio amak? Hirurak zaudete.**

**A.** Oso pozik dago.

**L.** Duela bi urte-edo jubilatzen. **A.** Baina egunero joaten da.

**L.** Ezin da etxean egon. Beste gauzak egiteko esaten diogu. Beti esaten zuten, nik ez dakit nola egin dudana, lau umerekin... Gerojosi behar da, denak ohean, bera josten. Hurrengo egunerako dena prestatzen.

**A.** Gau asko lorik egin gabe azkenean. Egunez, jendaurrean eta, gauzez, etxean josten.

**Zuen amak nola hartu zuen saria jasotzearena?**

**L.** Sorpresa izan zen. Cederna-Garalurrekoek sariketarako memoria bat prestatu zutela esan zioten joan den urtean. Ahaztuta eta festetan Garalurrekoen mezua jaso nuen: Zorionak! Amak saria irabazi du! Esan nion eta bera negarrez, hunkituta. Pozez. Azkenean, aitortza handia da.

**A.** Oso pozik!

**L.** Aurretik, denda, bere istorioa kontatzen bideoa grabatu zioten. Baluartean eman zuten larunbatean eta oso polita izan zen.

**A.** Guztiak joan ginen.

**L.** Saria ongi etorri da. Ama orain oso pozik dago. Gainera, jende guztiak zoriontzen du: merezi duzu, hainbeste urtez lanean...

**A.** Aitortza.

**L.** Jendearen konfiantza eskertzen du.

## Negozioren errelebo poltsa

Negozia eten nahi duen pertsona ekintzailearekin harremanetan jartzeko webgunea du Nafarroako Gobernuak (<https://labur.eus/WPP7N>). Errelebo hartzeko prest, baita negozioa saldu edo eskualdatu nahi dutenak daude, baita sakandarrak.

## Aldasorori txistorrak saria

XIV. Nafarroako Txistorra Txapelketa jokatu zen Iruñean igandean. 42 txistorra aurkeztu ziren eta garaikurra Aiegiko Santiago Moreno Etxarrik eskuratu zuen. Patxi Aldasoro Guajardo olaztiarrarendako izan zen 3. saria. Berak lortu duen hirugarren saria da. Txapelketako finalisten artean Fran Karasatorre Nagore zegoen, Etxarriko Karasatorre harategikoa.



@REYNO\_GOURMET

## Lidergo partizipatiboa eta eragina aztergai topaketa batean

Enpresetako lidergoa partizipatiboa izatea eta pertsonengan nola eragin aztertzeko jardunaldia da asteartekoa, 16:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean. Haren helburua da "enpresa eta erakundearen kudeaketan integrazioa, enplegarritasuna eta pertsonen konpromisoa erraztuko dituen lidergo partizipatiboko eredu bateranzko bilakae-

ra ezagutaraztea". Alberto Pardo enpresa-aholkulariak hartuko du hitza eta saio praktikoa izanen dela aurreratu du, eraginari buruzko tailer bat eta hurbileko esperientzien aurkezpena uzta-tuko baititu, bertaratutakoek ideiak, ezagutzak eta esperientziak trukatzeko helburu izanik.

Cederna-Garalurrek eta ANE-Lek antolatu dute, Nafar Lansarerekin elkarlanean. Jardunaldian parte hartu nahi dutenek alde aurretik izena eman behar dute (<https://labur.eus/f9Dk3>).



## Trimaneko lapurreta salatu du LABek

Kezka du enpresak langileekin-eta duen zorra pagatzea gero eta zailago ikusten duelako

### ALTSASU

LABek jakinarazi duenez, Trimanek Mieresen duen lantegian 1.368.000 euroko material lapurreta izan zen agorrilean. Antza, irailaren hasieran lapurtutako materialaren zati bat opatu zutela eta Asturiasko hedabide batek zabaldu duenez, hiru atxiloteta izan dira aste honetan.

LABek lapurretaren inguruko guztia argitzea exijitu du, "ardura guztiak argitu daitezzen eta lapurtutako materiala berreskuratzeke. Merkataritza epaitegiari exijitzen diogu konkurtsoaren kontrola bermatzea eta horrelakorik berriro ez gertatzeko neurriak hartzea". LABeko kideak "kezkatuta daude" "lantokiaren kalteengatik, "gero eta zailago ikusten dugu langileekin eta administrazioarekin dituzten zorren kitapena. Egoera ez da onargarria, jasan ezina da".

Triman Minerals hartzekodunen konkurtsoan dago 2018ko garagarrilaren 5etik eta 45 langileak (32 nafar) 2019ko martxoaren 11ean kaleratu zituzten. Langileei zor zaizkien soldataren zati bat Fogasatik kobratu badute ere, langile bakoitzari hamar nomina inguru zor zaizkie batzuek beste (milioi bat euro gutxi gorabehera).

LABeko ordezkariek gogorazi dutenez, 2019ko martxoaren 19an konkurtso-administratzaileak eskatu zuen Trimanen konkurtsoa errudun jotzea eta Jose Luis San Segundo Perez, Javier eta Cesar San Segundo Arbeloa errudun eta Saher 2000 SL konplize jotzea. Horrek ekarriko luke: pertsona horiek hartzekodun bezala duten eskubideen galera; pertsona juridiko eta fisiko horiek 923.838,8 euro konkurtsoari bueltatzea, pertsona fisiko eta juridiko horiek bi urtez desgaitzea ondasunak kudeatzeko edo pertsonak ordezkatzeko eta kostu guztien ordainketa.

## Euskaltegia hasi da euskaldunak sortzen

Sakanako AEK-k 15 talderekin hasi du ikasturtea. Euskara ikasi nahi dutenek talde horietan sartzeko

### SAKANA

Euskara ikasi eta lantzeko ikastetxeak, euskaltegiak, hasi dute kurtsoa. Sakanako AEK-rekin euskara ikasten hasi eta jarraitzen duten ikasleak irailaren 24tik daude klasean. Sortutako talderen batean izena eman nahi duenak AEK-k Altsasun duen Itsasi euskaltegitik, Gartzia Ximenez kaleko 46. zenbakitik pasa, 948 468 258 telefonora hots egin

edo sakana@ae.k.eus e-postara idatz dezake. Gainera, ikasturtea osatzen dutenek Sakanako Mankomunitatearen eta hainbat udalen beka eskuratzeko aukera izanen dute.

Bestalde, euskara jakin baina praktikatzerik ez dutenek Mintzakiden izena emateko aukera dute. Talde txikiak sortzen dira eta astean behin ordu batez hizketa praktika egiten da.

## AEKren ikastaroak

### Irurtzun

Hasiera maila	09:30-11:30	Asteartea, asteazkena eta osteguna
A2	15:00-16:00	Astelehenerik ostegunera
B1-B2	09:30-12:00	Astelehena, asteazkena eta ostirala

### Etxarri Aranatz

B1-B2	15:00-16:00	Astelehena, asteartea, osteguna eta ostirala
-------	-------------	--

### Altsasu

Hastapena	09:00-11:40	Astelehena, asteartea eta osteguna
Hastapena	18:00-20:00	Astelehenerik ostegunera
A2.1	09:20-12:00	Astelehena, asteartea eta osteguna
A2.1	18:00-20:00	Astelehenerik ostegunera
A2.2	09:30-11:30	Astelehenerik ostegunera
B1	09:20-12:00	Astelehena, asteartea eta osteguna
B2	09:00-11:40	Astelehena, asteartea eta osteguna
B2	19:00-21:00	Astelehenerik ostegunera
EGA	09:30-13:30	Larunbata
EGA	17:00-19:00	Astelehena, asteartea eta osteguna

## Salinasi espetxeratzea 450 euroko isunagatik aldatu diote

LABeko kideak Huerta de Peraltako lan gatazkagatik epaiketa du ostegunean, zigortu zuen epaile berarekin

### ALTSASU

Iruñeko zigor arloko 4. epaitegiak "mehatxu arinak" delitua egotzita 450 euroko isuna jarri dio Imanol Salinas LABeko sindikalistari. Emilio Labella epaileak 21 hilabeteko espetxe zigorra ezarri zion Salinasi La Sangiovesa jatetxean egindako protesta bategatik. LABeko kideek esan dutenez, "jarduera sindikal zilegiaren ondorioz Salinas espetxeratua ez izatea berri ona da sindikalismo osoarendako. Halere, enpresa eta sindikatua-ren artean lan gatazkari amaie-

ra emateko akordioaren gainera, ekintza sindikal legitimoaren kontrako prozesu judiziala egon izana bera salagarria dela iruditzen zaigu". Justiziaren "patronalizioa" salatu du: "Foruzaingoak, Lan Ikuskaritzak edota Fiskaltzak ez dute ezer egiten prekaritate eta esplotazio egoeren aurrean, aldiz horiek salatzen dituzten sindikalisten kontra aritzen dira".

Huerta de Peraltako ate parean furgoneta bat jartzeagatik epaituko dituzte Jose Javier Osés eta Salinas ostegunean.



## Guaixeko hemeroteka Irurtzunen

Guaixe hilabetekari zeneko ale guztiak, baita Oixe astekariaren ere. Horiek guztiak kontsultatzeko aukera daude Irurtzungo liburutegian astelehenerik hilaren 11ra arte. Guaixek abenduan 25 urte beteko ditu eta bere hemeroteka albisteen protagonista diren sakandarren esku uztea erabaki du, garai bateko kontuak gogoratzeko, edo ezagutzeko.

**EUSKAL HERRIKO ERDIGUNERA MARTXA**  
**URRIAK 13**

Zutabeak

- 09:30 Iruñeta (bordai)
- 08:15 Unana (herriko plazan)
- 08:45 Senosiain (Goiko partean dagoen Askari)

11:30 EKITALDIA

- 13:30 Pintxo-potea Iruñetako bordai
- 15:00 Bazkari herrikoa

Helduak 12€ Haurrak 6€  
Izena emateko: (+34) 620 190 277 Telefonoan  
Azken eguna urriak 6

ERDIKATZEN  
ERDIKATZEN



## Feriak ate joka

Gaur, egitaraua zabaltzeko, gospel kontzertua izanen da plazan, 18:30ean. Bihar eta etzirako egitarau zabala prestatu du udalak. Kirol eta gastronomia eskaintza zabala dute asteburuko ospakizunek

### ETXARRI ARANATZ

Garai bateko festen datetan feriak ospatzen dituzte etxarriarrek. Larunbat eta igandeko egitarauan kirola (pilota-riak, korrikalariak eta aizko-lariak), dantzaldiak, jatekoak (talo tailerra eta auzateak) eta salmahaiak izanen. Azken horiek igande goizean. Guztira 14 artisau lanean ikusteko aukera izanen da plazan. Haien aldamenen makina bat ekoizlek euren produktuak zuzenean salduko dituzte eta beharrezko azalpenak emanen dituzte euren mozkinen inguruan.

Plazaren beste aldean, bestalde, Etxarri Aranazko azien-daren erakusketa izanen da: ardiak, arikoak, astoak, ahuntzak, txerriak, behiak eta behor-rrak. Plazaren iparraldeko aldea beteko dute abeltzain etxarriarrek eta, horregatik, udalak eskerrak eman dizkie erakusketa prestatzeko egindako lanagatik. Aurtengo beritasuna Etxarri Aranatzen jokatu den III. Nafar Totilen txapelketa izanen da. Ez da goizean jokatu den lehiaketa bakarra, Sakanako artzainen gazten txapelketa ere jokatu baita 16. aldiz.

### OSTIRALA 4

18:30 The Upper Room gospel taldearen kontzertua, plazan.



Aziendaren erakusketa 10:00etatik aurrera izanen da igandean. ARTXIBOA

### LARUNBATA 5

12:00 Etxarriko erraldoi eta buruhandien konpartsa.  
17:00 Talo tailerra, Saralegitarrakin.  
17:00 Pilota partidak, frontoian.  
18:00 Bordetxe abere zirkua, plazan.  
20:00 Auzatea, Karriestu elkar-tearen eskutik.  
20:00 Salbea, elizak antolatutik.  
20:30-22:00 Dantzaldia The Trikiteens taldearekin.  
22:00 Zezensuzkoa.  
00:00-03:00 Dantzaldia The Trikiteens taldearekin.

### IGANDEA 6

10:00-14:00 Etxarriko azien-daren

erakusketa. Ekoizle eta artisauen azoka.

11:00 XLIV. Mendira Joan-Etorria, Udaberri elkarteak antolatutik.  
11:15 Auzatea, Larrañeta elkartearen eskutik.  
11:30 Sakanako artzainen XVI. Gazta Txapelketa.  
12:15 III. Nafar Tortillaren Txapelketa.  
Izen ematea gauerdira arte info@kukubat.eus e-postan.  
18:00 Euskal Herriko bigarren mailako aizkora txapelketaren kanporaketa, frontoian.  
18:00-21:30 Xaiborrekin musika jaialdia.  
21:00 Zezensuzkoa.



Udan, Etxarri Aranatzen egindako tortilla nafarrari buruzko hitzaldia. ARTXIBOA

## Egunerokoa eta herrikoia denarekin lehiaketa

III. Nafar Tortillaren txapelketa igandean, 12:15ean, plazan. Izen ematea doakoa da

**Eneida C M / Alfredo A** ETXARRI ARANATZ  
Kudrillak, tabernak, jatetxeak eta nahi duen guztiak aurkezteko aukera du III. Nafar Tortillaren lehiaketan. Kukubat elkar-teko Patxi Alañak eman dizkigu azalpenak.

### Kukubat elkarte zer da?

Euskal Herria kanpotarrei gastronomia edo paisaia hutsarekin erakusten zaiela ikusten genuen. Europako herririk zaharrena omen garenez, uste genuen, agian, beste gauzak azaldu beharko genituzkeela: gure historia, hizkuntza, euskararen jatorria... Lan horretan Nafar Tortillaren ekimena atera zen.

### Nolaz?

Jendeak patata tortilla Espainiatik zetorrela esaten zuen. Extremaduran halako monumentu bat daukate. Hangoa aurreneko aipamentzat zeukaten, baina patata-ogia da. Bizkaian pentsatu izan da beti Zumalakarregi Bil-

bo askatzera joan zenean asmatu zela. Zorionez istorioa argitu da. Nafarroan duela 202 urteko aipamena daukagu, Bilboko askapen ekimena baino lehenago. Horrek esan nahi du Karlistadetan patata tortilla Nafarroatik Bizkaira heldu zela.

### Zein dira nafar tortillaren oinarriak?

Aurreneko aipamena izan zen 1817an. Garai hartan ez zegoen Arartekorik, baina edozein herriarrik bazuen aukera Nafarroako Gorteei edozein eskaera edo edozein idazki bidaltzeko. Baserritar askok janari esportatzaile izatea eskatu zuten. Uzta handia zegoenean Nafarroatik ezin zen atera ez janaririk ez edaririk. Gorteei eskatu zioten Nafarroako errege-ordeari zuzendu eta Madrilen eska zezala esportatzeko aukera izatea. Prezio baten barruan, ez zuten espekulatu nahi, ezta prezioak lurreraino jaistea ere. Hori jus-





tifikatzeko ipini zuten nola jaten zuten nafarrek duela 202 urte: hiru arrautzekin sei lagunendako patata tortilla egiten zuten, arrautzak, patatak, otapurrak eta beste zenbait osagai. Pentsatu behar dugu garai hartan, edozein baserri arruntetan, egon zitezkeen edozein osagai, osagai normalak. Eta, jakina, garrantzitsuena, ogi-apurrak. Garai batean ogia ez zen zaborretara botatzen, gaur egun ikusten dugun moduan. Aiton-amonek ikusiko balute, benetan harririkoa lirakeke gure janariaren sinboloa den ogia nola botatzen den. Garai hartan ogi lehorra saltsak egiteko baliatzen zen, gauza askotarako. Nafarroan patata-tortilla egiteko erabiltzen zuten. Egia esan oso osagai ona da.

#### Zergatik?

Tortilla egiteko denbora erdia kostatzen zaizu. Patata kopuru erdia eta beste erdia otapurrak behar dituzu. Ogi-apur bustiak. Aurreneko lehiaketa irabazi zuek esnetan busti zituen otapurrak. Baina ardotan, edo beste zerbaitetan ere, ongi. Xamur gelditzen da. Azkarrago egiten duzu tortilla. Ogi lehorra aprobetxatu behar da.

#### Otapurrak esaten duzunean, berdin da azala edo mamia?

Ogia.

#### Lehiaketan parte hartzeko alde aurretik izena eman behar da, ezta?

Bai, parte-hartzaileek mahaia behar duten edo ez jakiteko. Gai-nontzeko tresneria haiek jarri behar dute. Arabako patata poltsa bana eta Larraz markako dozena bat arrautza jasoko dituzte parte-hartzaileek. Baina gainerako osagaiak euren kontu izanen dira. Ez da ezer ordaindu behar. Animatzen direnak [info@kukubat.eus](mailto:info@kukubat.eus) e-postaren bidez egin daiteke izen ematea, gaur 24:00ak arte.

#### Nafar tortillak plazan prestatu behar dira edo etxetik eginak eraman daitezke?

Edozein modutan. Eraman daiteke patata etxetik frijituta eta han buelta eta buelta ematea. Edo etxetik egin eraman. Garrantzitsuena da nafar tortilla 12:15ean aurkeztea. 13:00ak baino lehen erabakia hartu eta sariak emanen dira: aurrenekoari 100 euro, bigarrenari 75 euro eta hirugarrenari 50 euro.

#### Zein izanen dira epaileak?

Bi etxarriar eta guk eramandako aditua. Bospasei irizpide badaude nafar tortillak baloratzeke.



Etxarri Aranazko lasterketa motza baina polita da, malda gogorrekin. ARTXIBOA

## Dena prest igandean Hartzabalera igotzeko

44. Mendira Joan Etorria jokatu da igandean Etxarri Aranazko ferietan, goizeko 11:00etatik aurrera. Aurretik eman daiteke izena, edo egunean bertan. Garai bateko apustuetan oinarrituta, Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketarako puntuagarria da

#### ETXARRI ARANATZ

Etxarriko ferietako klasiko bat da Mendira Joan Etorria. Aurten lasterketaren 44. edizioa jokatu da eta antolakuntzan aldaketa eman da. "Lehen Udaberrikoek antolatzen zuten proba, baina talde berak urte asko zeramatzen antolakuntzan, eta aurten taldea berri eta zabaldu dugu. Sei kide gaude antolakuntzan eta horietatik 2 dira Udaberri elkar-tekoak; gainontzekoak ez" adierazi du antolaketan dabilen Joana Lopez korrikalari etxarriarrak Beleixe irratan (07.3 FM). Etxarri Aranazko Udalaren eta herriko eta inguruetak hainbat entitate, komertzio eta tabernen babesa dute proba antolatzeko.

Garai bateko apustu baten harira 1976. urtean jaio zen Etxarri Aranazko lasterketa hau. Aurten 44. edizioa jokatu da, eta Euskal Herriko lasterketarik beterranoetarikoa bat da.

Korrikalariak goizeko 11:00etan abiatuko dira Etxarri Aranazko plazatik. Erronka Bargara igotzea da, pago eta haritz artean, Hartzabaleraino, maiatza jartzen den

tokira hain zuzen (1.065 m). Jaitiera bide berdinetik egiten da. Probak guztira 10 kilometro ditu, eta 572 metroko desnibel positiboa.

Lasterketa Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketarako puntuagarria da.

#### Lopez: "Lasterketa motza da, baina malda handiko aldapak dituena"

Probako zein eguraldi den egokiena galdetuta, Lopezek dio eguraldi "ona" egotea ez dela berdin ikusleendako edo korrikalariendako. "Lasterketa motza da, baina aldapak malda handikoak dira. Lokatza dagoenean, behera jaisterakoan mantsoago zoaz, baina lehorra badago, azkarazkar. Bero egiten badu, nabaritzen da. Beraz, egokiena eguraldi freskoa baina zoru lehorra da"

### "PROBAN ARITZERA ANIMATZEN DUGU JENDEA. LASTERKETA POLITA DA ETA GIRO BIKAINA EGOTEN DA"

gaineratu zuen Lopezek. Eguraldi iragarpenak tenperatura epe-lak baina akaso euri tantaren bat iragartzen du iganderako. Hala beteko balitz, korrika egiteko bikaina.

#### Izena ematea zabalik

Aurretiazko izena ematea zabalik dago [www.rockthesport.com](http://www.rockthesport.com) web gunean urriaren 5eko, larunbateko 22:00ak arte (10 euro). Bestela, egunean bertan eman daiteke izena, Etxarri Aranazko plazan, goizeko 10:30ak arte (15 euro). Aritzeko gutxieneko adina 16 urtekoa da. Dorsalak 09:00etatik 10:00etara banatuko dira udaletxeko estalopean. "Normalean 100 korrikalari inguruk parte hartzen dute. Aurten lasterketa garrantzitsua dago igandean Pirinioetan, Sky Pirineu Ultra, eta puntako korrikalari asko bertan izango dira. Horregatik, parte-hartzean nabaritu dugu, baina inguruko korrikalari asko hurbiltzen dira Etxarri" zioen Lopezek. Izan ere, lasterketa polita da Etxarriko. "Bertan parte hartzera animatzen

dugu jendea. Lasterketa polita da eta giro oso polita egoten da. Bukaeran korrikalariendako auzate ederra egoten da, sariak, herriko komertzio eta enpresek emandako produktu bikainekin osatutako loteen zozketa... Jendeari asko gustatzen zaio Etxarriko lasterketa, feriak direnez giro oso ona egoten delako" nabarmendu zuen korrikalariak.

Sari ematea plazan egingen da. Lehendabiziko gizon eta emakumeek 150 euro, txapela eta trofeoa jasoko dituzte, bigarrenek 100 euro eta trofeoa eta hirugarrenek 50 euro eta trofeoa. Bestalde, lehendabiziko hiru gizon eta emakumezko etxarriarrek trofeoa jasoko dute. Lehen beterranoendako ere sari berezia egingo da. Eta bertako produktuekin prestatutako loteak zozketatuko dira.

#### Errekorra apurtuz gero, 300 euroko saria

Etxarri Aranazko Mendira Joan Etorriko gizonen errekorra 2001ean ezarri zuen Juan Mari Garinek (42:50), eta emakumezkoena Virginia Perezek (52:18), 2016an. "Garinen errekorra apurtzea oso zaila da, sekulako denbora delako, denbora oso ona. Emakumezkoetan, ordea, uste dut errekor hori gainditu ahal dela. Orain jendea geroz eta gehiago prestatzen da, eta errekor bat apurtzea beti da handia, tartean sari erakargarri bat badago, are gehiago" nabarmendu zuen Joana Lopezek.

Iaz 43 korrikalarik osatu zuten 43. Mendira Joan Etorria, eguraldia fresko eta tarteka euria ari zuela. Horietatik 48 sakandarrak ziren. Beñat Katarain la-kuntzarra (45:30) eta Izaskun Sanz (59:41) gailendu ziren, azken hau Joana Lopez etxarriarri 2 minutu pasa aterata (1:01:45).

**E & D**  
English & Deutsch

Sara Zufiaurre  
ETXARRI ARANATZ

630 948 302



## "Badakit zaila dela, baina irabaztera aterako naiz"

**JOANES BAKAIKOA** PILOTARIA

Lau T'erdiko Lehen Mailako Txapelketan debutatuko du bihar, larunbatean, Joanes Bakaikoak, Etxarriko ferietan. Erik Jaka du aurkari eta partida gogorra espero du

**Maidar Betelu** ETXARRI ARANATZ

Lau T'erdiko Txapelketako final-zortzirena herrian jokatzegatik pozez gainezka dago Bakaikoak. **Entrenamendu bidean harrapatu zaitugu, larunbatekoa prestatzen.** Gaur (asteartea) azken entrenamendu fuertea egingo dut Etxarri Aranazko frontoian, bihar (asteazkena) pilotak aukeratu, zehozer entrenatu eta larunbaterako prest.

**Iaz 2. mailako Lau T'erdia irabazi zenuen eta horri esker aurten lehenengo mailako txapelketan ariko zara. Lehen maila beste koska bat da, edo ez dago horrenbesteko alderik 2. mailarekin?**

Bigarren mailako txapelketa irabaztea zaila da, baina lehenengo maila beste mundu bat dela esaten denean ez da gezurrik esaten. Asko nabaritzen da alde. Lehenengo mailako pilotariak abiadura handia ematen diote pilotari, desberdin egiten da, erritmoa biziago izaten da. Zailagoa da lehendabiziko maila. **Final-zortzirenetan sartuko zara lehian, jaioterrian, Etxarriko ferietan; hau luxua...**

Bai, egia esan oso pozik nago. Jaioterrian jarri didate partida. Feriak dira, jendea gustura egongo da, jende asko joango da frontoira eta animo faltarik ez dut izanen. Gero beste kontu bat da



Joanes Bakaikoak eta Erik Jakak atzo aukeratu zuten materiala.

partida nola ateratzen den. Partida zaila izango da, baina aldi berean polita. Eriken kontra zaila izango dut, pilotari oso ona delako. Baina partida garrantzitsua da, irabaziz gero final laurdenetarako ligaxkara sailkatuko naizelako eta hor hiru partida jokatzeko lasaitasuna izango nukeelako. Eta galduz gero, etxera. Ikusiko da.

**Erik Jaka ez da nolana hiko arerioa. Nola ikusten duzu larunbateko final-zortzirena?**

Partida gogorra izanen da. Dena den, lehen mailan edozeinen

kontra tokatuta ere, partida gogorra izanen litzateke, eta Eriken kontra beste hainbeste. Oso erasokor jokatzeko du, oso agresibo, eta irabazi nahi badut partida osoan zehar zentratuta egon beharko dut. Jakina, horretan saiatuko naiz. Nik nirea eginez gero, badakit irabazteko aukerak izango ditudala eta ni irabaztera aterako naiz.

**Nola egin ahal diozu minik gehien?**

Partida hasieratik sentsazio onak izaten saiatuko naiz; eta pilotari abiadura ematen eta bereziki nik iniziatiba hartzen. Ni izatea

erasotzen duena eta ez bera. Bera defentsara eramaten saiatuko naiz. Bera erasokorra da, erasoan oso ona, eta akaso bere ahulda-deetako bat defentsa litzateke. Gehiago kostatzen zaio. Saiatuko naiz ni erasora jokatzeko defentsara baino.

**Etxarriko frontoia nolakoa da?**

Herrian jokatzeko oso polita da, jendea zure alde egoten delako. Frontoiak estraño batzuk egiten ditu noizbehinka eta zorua ez da beste frontoi batzuk bezain noblea, baina, azkenean, herrietako frontoi gehienak bezalakoa da; ez da frontoi txarra, baina bientzat berdina izango da eta alde horretatik ez dago inolako aitzakiarik. **Irabaziz gero, zure multzoan Altuna III.a eta Urrutikoetxea izango zenituzke zain final-laurdenetako ligaxkarako. Eta haiekin batera Irribarria edo Victor, asteburu honetako beste final-zortzirenetako partidari gailentzen dena. Final-laurdenetarako sailkatzea handia litzateke, ezta?**

Bai, eta talde oso ederra tokatuko litzaidake. Baina helburua ez da orain horretan pentsatzea. Ni saiatu behar naiz larunbatean ahalik eta partidari onena egiten. Zaila daukat, baina irabaztera aterako naiz. Irabaziko banu talde horretan sartzeak ilusio handia emango lidateke eta saiatuko nintzateke euren kontra gogor jokatzeko, gerra ematen. Baina pausuz-pausu joan beharra dago eta lehen partida honetan topera aritzen saiatuko naiz.

**Lau T'erdia prestatzeko nahikoa tarterik izan duzu? Edo udako torneo eta partidekin ez duzu astirik izan?**

Denok antzeko gabilta, partida dezenterekin. Buruz Buruko prestatzeko tarte gehiago izaten da Lau t'erdia prestatzeko baino, udako partidak direla eta, baina

entrenamendu batzuk egin ditut, gustura sentitu naiz entrenatzen eta alde horretatik gustura. Orain sentsazio onak ditut; bolada onak eta ez hain onak izan ditut azkenaldian, baina orain ez dut arazorik, eskuak ongi ditut eta partida egunean ahalik eta hobekien egoten saiatuko naiz. Garrantzitsuen partida eguna izaten da. Pixka bat urdurituko naiz, baina normalean hori ez da nire arazoa izaten; gehiago izaten da egun txarra izatea jokoan edo gauzak ongi ez ateratzea, baina urduritasunak ez dit kalterako eragiten.

**Lagunak eta gertukoak Etxarriko partidari joango dira.**

Bai, eta oso pozik daude. Jendea gustura hartu du partida Etxarri jokatzeko; jendearendako oso polita da etxe ondoan halako partida garrantzitsua jokatzeko. Ni saiatuko naiz nirea ematen. Azkeneko entrenamendua bihar egingo dut, partida aukeraketan (asteazkena).

**Aurtengo Etxarriko feriak borobillagoak izango lirateke zuk irabazita...**

Ea hala den, saiatuko naiz. Polit litzateke!

### Etxarri Aranazko pilota jaialdia

Larunbatean, 17:00etan, Euskalerriri pilotalekuan

**Neskak:** Udane Bergaralrati Igoa / Eider Salbide-Leire Oskoz

**Mutilak:** Arretxe

II.a-Ezkizoz / Agirre-Erasun

**Lau T'erdiko Txapelketa:**

Jaka / Bakaikoak

\*Sarrerak: aurretik 15

euro, Etxarriko Udaletxean.

Leihatilan 20 euro.

**Amaya**  
OGITEGIA  
ZUREKIN 1964 GORLOTZEK

ALTSASU / 948 562 205 / 673 821 346 / Ondarrria Poligona - 6. Pab

ZUREKIN 1964 GORLOTZEK

**Amaya**  
OKINDEGIA

ALTSASU  
678 323 403  
• Iruña Hiribidea, 48  
948 468 026  
Zumalakarregi Plaza,3  
670 389 017  
• San Juan Kalea, 50  
948 562 185  
• Otadiko Kriste Deuna, 19

OLAZTI  
948 468 755  
• Orreaga Kalea, 1

ARAIA  
945 314 572  
• Andoni Urrestarazu, 3

VITORIA-GASTEIZ  
945 148 368  
• Arriagako Atea, 12

ETXARRI-ARANATZ  
948 461 660  
• Kale Nagusia, 4



## AIZKORA Iban Resano EHko 2. mailako kanporaketan, Etxarrin

Etxarri Aranazko ferietan, mendi lasterketaz eta pilota jaialdiaz aparte, beste kirol bati tokia egingo zaio. Igandean, 18:00etan, Euskal Herriko 2. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa jokatuko da frontoian. Euskadiko Herri Kirol Federakundeak antolatu du ekitaldia, Etxarri Aranazko Udalararen laguntzarekin.

Guztira 14 aizkolari lehiatze-koak ziren, baina azkenean 12 izango dira ariko direnak: Arkaitz Jauregi (Araba), Juan Jose Lopez (Nafarroa), Eloy Corchero (Araba), Julen Larrea (Bizkaia), Jose Antonio Etxeberria (Nafarroa), Hodei Ezpeleta (Bizkaia), Oier Kañameres (Nafarroa), Jon Irazu (Gipuzkoa), Iban Resano (Dorrra), Xabier Zaldua (Gipuzkoa), Asier Pellejero (Nafarroa) eta Aratz Mugertza (Gipuzkoa). Julen Kañamaresek (Nafarroa) eta Oihan Larretxeak (Nafarroa) azkenean ezingo dute aritu, gaitxo daudelako.

Lan potoloa egin beharko dute aizkolariek: 5 pago enbor erdibitu beharko dituzte, 54 ontzako hiru enbor; 60 ontzako enbor bat eta 72 ontzako enbor bat.

Etxarriko kanporaketan azkarrenak diren lehen sei aizkolariek urriaren 19an, 18:00etan Altsasuko Burunda pilotalekuan jokatuko den final handian egoteko txartela lortuko dute.



Finalistak, sariekin. UTZITAKOIA

## FRONTENISA San Migel Txapelketako finalak, erabakita

Loreak eta Alejok irabazi zieten Olaztiko Frontenis Txapelketa, Mitxeli eta Antoniori (30 eta 26).



Garikoitz Flores 2017an Urbasan gora. Orduan hirugarrena izan zen lakuntzarra.

# 95 pilotu Urbasako motor festan

**AUTOMOBILISMOA** Bihar, larunbatean, XXXVIII. Urbasako Igoera jokatuko da. Entrenamendu libreak 11:00etan hasiko dira eta entrenamendu ofizialak 13:00etan. Errepidea gaur itxiko da, ostiralean, 19:00etan eta egiaztapenak gaur hasiko dira

2018an motorzaleak Urbasako Igoerarik gabe geratu ziren. Proba lehenengo aldiz antolatu zeneko 50. urteurrena izan behar zen iazkoa, baina Sakana Motorsportek proba ez ospatzeko erabakia hartuzera derrigortuta ikusi zuen bere burua, "Nafarroako Gobernuak azken orduan egindako eskaerak bete ezinak" zirela argudiatuta. Aurten eskakizun guztiak betetzeko nahikoa tartea egon da eta bihar, larunbatean, Urbasan gora puntako auto ikusgarriak ikusteko aukera izango da.

Sakana Motorsport eskuderiak antolatu du igoera, hainbat babeslerekin. Nafarroako Mendi Txapelketarako eta Errioxako Mendi Txapelketarako puntugarria izango da. Baina Urbasako probak badu berezko zerbait; xarma berezia, erakartzen duena. Horregatik, puntako pilotuak egongo dira eta haien lana jarraituzera milaka ikusle bilduko dira, eguraldi ona iragartzen dutela kontuan hartuta, gehiago.

**95 pilotu, tartean 10 sakandar**  
95 pilotuk eman dute izena proban. Faboritoen artean Joseba Iraola, Arkaitz Ordoki, Garikoitz Flores lakuntzarra, Iñaki Irigoien, Jon Zuazua, Ibon Beitia, Iker Palacios lakuntzarra, Iñigo Zelaia bakaikuarra eta beste daude. Beraienak dira probako autorik azkarrenak, baretak, formulak ea speed carrak.

Horietatik 10 pilotu dira sakandarrak: Garikoitz Flores (BRC B49), Iker Palacios (BRC 05 Evo), Iñigo Zelaia (Speed Car GT 1000), Iban Lopez de Goikoetxea (Renault 5 GT Turbo), Garikoitz Goñi (Renault Clio Sport), Urko Berdud (Renault Clio Sport), Ander Gurmindo (Renault Clio Sport), Eneiz Besga (Citroen Saxo), Mikel Mendinueta (Peugeot 205 G) eta Iker Askargorta (Opel Astra), Sakana Motorsport eta Arakil Motorsport eskuderietaoak.

Urbasako igoerako azken edizioan, 2017an, Joseba Iraola izan zen azkarrena (Norma NAC M20, 3:09.820), eta Garikoitz Flores

lakuntzarra (BRC B-49) hirugarrena sailkatu zen (3:20.426).

### 5,72 kilometroko igoera

Olazti eta Zudaire arteko NA-718 errepidean jokatuko da proba, Olaztitik Urbasako portura. Hau da, 5,72 km eta 285 metroko desnibela izanen ditu. Ibilbideak bi zati dauzka. Lehenengo zatia oso azkarra da, eta bigarren zatia, aldiz, teknikoagoa, bihurtuz betetakoa.

### Gaur 19:00etan itxiko dute errepidea

Gaur, ostiralean, arratsaldeko 19:00etan itxiko dute Olaztitik Urbasara doan errepidea. Jende asko bezperatik igoko da Urbasara, eta antolakuntzak zehaz-

## SOILIK BAIMENDUTAKO GUNEETAN KOKATZEKO DEIA EGIN DU ANTOLAKUNTZAK

tutako eremuetan aparkatzea eta Urbasa-Andia natur parkea garbi izatea eskatu dute. Bihar, larunbatean, goizeko 7:30ean irekiko da ibilbiderako sarbidea, oinezkoendako.

### Segurtasuna bermatzea, antolatzaileen kezka nagusia

Uneoro pilotuen eta ikusleen segurtasuna bermatzea da antolakuntzaren helburu nagusia. Horregatik, soilik zehaztutako guneetan kokatzeko eskaria egingo zaie zaleei; argi utzi nahi du Sakana Motorsportek: debekatutako eremuetan ezingo da egon; soilik baimendutako eremuetan jartzeko deialdia egin dute, balioko istripuak ekiditeko. Eta erorketa edo luiziak egoteko arriskua dagoen lekuetan ez jartzea eskatu du antolakuntzak.

Horretaz aparte, Urbasa-Andia natur parkea dela kontuan hartuta, antolakuntzak norberak bere zaborra jasotzea eta mendia garbi-garbi uztea eskatu du.

### Autoen egiaztapenak gaur hasiko dira

Gaur, ostiralean, 16:30etik aurrera proban parte hartuko duten autoen egiaztapenak hasiko dira, Clinker jatetxe parean. Egiaztapenekin larunbat goizean jarraituko du antolakuntzak. Autoen asistentzia gunea Erburua kiroldegiko aparkalekuan egongo da.

### 11:00etan entrenamendu libreak eta 13:00etan entrenamendu ofizialak

Larunbatean, goizeko 11:00etatik aurrera entrenamendu libreak egiteko aukera izango dute pilotuek. Gero, gutxi gorabehera 13:00etan, lehen entrenamendu ofizialei ekingo diote autoek eta, segidan, probako bi txanda ofizialak jokatuko dira.

19:30ak aldera izango da sari ematea, Clinker parean. Batetik, lasterketako sailkapen orokorra edo scratcha kontuan izanda sariak banatuko dira. Segidan, kategoria edo klase bakoitzeko lehen sailkatutako autoak sarituko dituzte, baita Nafarroako junior pilotu onena eta lehen hiru pilotu sakandarrak.

Ikuskizunarekin gozatzeko deia egin diete Sakana Motorsportekoek zaletu guztiei. 95 pilotu, auto ikaragarriak, milaka zale, eguraldi ona... motorraren festa inoiz baino eder eta zaratatsuagoa izatea, hori da erronka nagusia.



# Cartagena hartuko du Osasuna Magnak bihar

**ARETO FUTBOLA** Santa Colomaren kontra gol festa ederra ospatu eta gero, bihar, larunbatean, denboraldiko talderik indartuenetako bat hartuko du Osasuna Magna Xotak: Jimbee Cartagena. Bestalde, Goikoa talde berdearen babesle berria izanen da

Aurreko asteburuan Osasuna Magna Xotak 3 puntu ekarri zituen Bartzelonatik. Santa Coloma eta Osasuna Magna berehala hasi ziren erasoan. Araçak Santa Colomako atea zulatu zuen kontraeraso bat bikain aprobetxatu eta gero. Atsedendititik bueltan, Bynhok talde berdearen bigarren gola sartu zuen eta Santa Coloma Osasuna Magnaren atea zulatzekotan egon zen, baina Asierrek geldialdi bikaina egin zuen. Rafa Usinek Osasuna Magnaren hirugarren gola sartu zuen, eta partidaren azken minutuan beste bi gol sartzeko tartea izan zuten irurtzundarrek: Araça eta Mancuso izan ziren golegileak.

## Bihar Jimbee Cartagena

Imanol Arregi entrenatzailea pozik zegoen. "Garaipen garrantzitsua izan da; partida serioa jokatu dugu. Lehen zatian bi taldeak parez-pare ibili gara, baina bigarreanean gu hobek



Martilekin negoziazioetan dago Xota.

izan gara eta oso kontentu nago mutilek egindako lanarekin" nabarmendu zuen. Barçak jarraitzen du lehen mailako lider, eta Osasuna Magna Xota hirugarren postura igo da (6 puntu). Bihar, larunbatean, 18:00etan,

Jimbee Cartagena taldea hartuko du talde berdeak Anaitasunan. Xotako Tatono Arregi presidentek aipatu zuenez, "talde aberats berrietakoa da aurten Cartagena, eta partida zaila izango da".

## Goikoak Xota babestuko du

Xota klubeko presidente Tatono Arregik azaldu duenez, Goikoa hestekiak enpresa izango da talde berdeko babesle berria, aurrekoei gehituz. "Egoera konplexua bizi dugu eta bertatik ateratzeko babesletza berriak behar ditugu. Ziur nago aurrera aterako garela beti egin izan dugun moduan, finantziario pribatuaren eta publikoaren laguntzarekin eta bazkideen babesarekin".

Presidenteak gaineratu zuen Rafa Usini urte baterako luzatu diotela kontratua eta Roberto Martilen kontratua zabaltzeko negoziazioak ere martxan daudela. Dani Saldiseri kontratua berritzeko negoziazioetan, aldiz, momentuz ez dago akordiorik.



Plaza katxarroz beteko da.

## AUTOMOBILISMOA

### Bakaikuko Katxarro Eguna, ate joka

Hurrengo larunbatean, urriaren 12an, kotxe, moto, traktore, bizikleta eta mota guztiko katxarroren topalekua izango da Bakaiku. Bosgarren urtez jarraian, Katxarro Eguna antolatu du Bakaurrekoetxea Elkartek, klasikoen topaketa. Goizeko 10:00etatik aurrera Bakaikuko plaza eta inguruko kaleetan mota guztietako ibilgailu klasikoak ikusgai jarriko dira, bertara hurbilduko diren gozamenerako. Ondoren, bazkaria egongo da elkartean (helduek 20 euro, haurrek 9 euro).

Katxarro egunean parte hartu nahi dutenek, edo bazkarira joan, ondoko e-posta edo telefonoetan eman dezakete izena: katxarroeguna@gmail.com, 691 557 448 edo 680 825 557).

## FUTBOL PREFERENTEA

3. JARDUNALDIKO EMAITZA	
Lagun Artea - Arrotxapea	1-1
Amigo - Etxarri Aranatz	2-1

SAILKAPENA	
PREFERENTEKO 1. MULTZOA	
1 San Jorge	9
6 Lakuntzako Lagun Artea	5
11 Etxarri Aranatz	3

HURRENGO JARDUNALDIA	
LARUNBATEAN	
16:00 Etxarri - Lagunak (San Donato)	
IGANDEAN	
17:00 San Miguel - Lagun (Larraga)	

## Azken minutuetan 3 punturik gabe

Lakuntzan, lehen zatian Arrotxapeak dominatu zuen, baina ez zuten golik sartu. 2. zatian bi taldeak parez pare ibili ziren eta Agirrek Lagun aurreratu zuen, baina partida bukatzeaz zegoela berdintzea lortu zuen Arrotxapeak. Etxarri eta Amigok aukera politak sortu zituzten. Amigo aurreratu zen, eta jokalaria bat gutxiagorekin gelditu ziren etxarriarrek. Hala ere, berdintzea lortu zuten. Tamalez, azken minutuan garaipenaren gola sartu zuen Amigok.

## FUTBOL ERREGIONALA

3. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Altsasu - Iruña B	2-4

SAILKAPENA	
ERREGIONAL MAILAKO 2. MULTZOA	
1 Berriozar	7
12 Altsasu	1

HURRENGO JARDUNALDIA	
IGANDEAN	
11:30 Univ. de Navarra - Altsasu (Iruña)	

## Altsasu saiatu zen, baina puntuek ihes

Altsasan, lehen zatian 2 gol sartu zituen Iruña. 2. zatian erasora atera ziren gorritxoak eta Guisadok Altsasuren lehen gola sartu zuen, baina Iruña hirugarrena lortu zuen. Lobok 2 eta 3 gerturatu zuen Altsasu, baina Iruña laugarrena egin zuen.



GERNIKA LOINTEK

## Naiara Diezen Gernika lanean

**SASKIBALOA** Asteburuan hasi zen Emakumezkoen Lehen Mailako Liga. Naiara Diez altsasuarraren Gernika Lointek taldea Nissan Al-Qazeresen kontra aritu zen, eta garaipena lortu zuten bizkaitarrek, 66-59, baina ederki sufrituta. Aurreko astean denboraldiaren aurkezpena egin zuen talde granateak, eta "Mareak Garamatzan Lekura" da aurtengo leloa.



NAFARROAKO MENDI ETA ESKALADA FEDERAZIOA

## Mendiko Segurtasunaren Eguna

**MENDIA** Espainiako Mendi eta Eskalada Federazioak eta Espainiako Mendiko Gidarien Elkartek Mendiko Segurtasunaren II. Nazio-Eguna antolatu zuten asteburuan Altsasan eta Uharte Arakilen. Mendiko segurtasuna, mendiko erreskateak eta beste izan zituzten hizpide antolatutako hitzaldi eta tailerretan.

## EMAKUMEEN ERREG.

4. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Altsasu - Beti Kozkor	6-1

SAILKAPENA	
EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA	
1 Castejon	12
13 Altsasu	3

HURRENGO JARDUNALDIA	
IGANDEAN	
18:15 Univ. Navarra - Altsasu (Iruña)	

## Denboraldiko lehen garaipena

Altsasuko neskek gol festa ederra ospatu zuten, 6 eta 1, Beti Kozkorren kontra.





Jon Gil lakuntzarra, igandeko Atarrabiako etapako helmugan. MARTIN EARLY

## Jon Gil lakuntzarra gailendu zen Indurain Anaiak Sari Nagusian

**TXIRRINDULARITZA** Lizarte taldeko txirrindulariak Atarrabiako proba esprintean irabazi zuen

Igandean juniorren eta kadeteen 2. urteko mailako lasterketa jokatu zen Atarrabian, XXIII. Indurain Anaiak Sari Nagusia. Txirrindulariek 84 km gorabeheratsu izan zituzten aurretik, eta etengabeko erasoak izan ziren. Azkenean 4 txirrindulariz osatutako taldea iritsi zen batera helmugara, eta esprintean Jon Gil lakuntzarra (Lizarte Ermitagaña) gailendu zen, Raul Lopezen (Fundacion Lintxu) eta Eneko Ariztegiaren (Beola Motor) aurretik. Denboraldia ia ixtear dagoen honetan, garaipen polita lortu zuen Jon Gilek.

Gutxika gainontzeko txirrindulariak helmugaratzen joan ziren, bost minutu pasara. Sakandarrei dagokionez, Mikel Lizasoain (Sakana Group) 21.a sartu zen, Mikel Arretxe (Beola Motor) 24.a, Unax Miranda (Sakana G.) 44.a eta Unai Villalobos (Q. Albeniz) 49.a.

### Igandean azken lasterketa Atarrabian

Igandean despedituko da juniorren eta kadeteen txirrindularitza denboraldia, atzera ere Atarrabian jokatu den probarekin, kasu honetan XLIV. Atarrabiako Udala Trofeoarekin. 84 kilometroko lasterketa goizeko 11:00etan abiatuko da.

### Euskadi-Murias taldeari agur

Euskadi-Murias taldeak denboraldi ikusgarria egin du, tartean Mikel Iturriak Vueltako Urdaizubiko etapan lortutako garaipena. Baina taldeak ezin du jarraitu, babesle berri bat aurkitzeko negoziazioek ez dutelako fruiturik eman. Azken unera arte borrokatu dute, baina ezin. Taldeko egiturari zegoen Patxi Mundiñano etxarriarra, mekanikari eta zuzendari-alboko lanetan. Une zailak dira dira, beraz, guztiendako.

# Gorka Izagirre: "Mundiala oso gogorra izan zen"

**TXIRRINDULARITZA** Sekulako euri jasak zeudela jokatu behar izan ziren Munduko Txirrindularitza Txapelketak. Gorka Izagirre 9.a sailkatu zen eta txapeldunaren taldean sartzeaz egon zen. Imanol Erbiti 44.a iritsi zen

Hotza eta euria. Euri jasa ederra jasan behar izan zuten Yorkshirreko Munduko Txirrindularitza Txapelketako lasterketan parte hartu zuten txirrindulariek, euri alerta tartean. Espainiako selekzioarekin aritu ziren Imanol Erbiti (Movistar Team) eta Gorka Izagirre (Astana). Alejandro Valverde atzera ere munduko txapeldun izaten laguntzeko lana zuten. Liderraren alde lan egin zuten, baina Valverdek hotzari eta euriari ezin izan zion behar bezala aurre egin eta murtziarra erretiratu egin zen, eta ahal izan zutena egin zuten gainontzekoek, ur putzu artean.

Hasieratik etengabeko erasoak izan ziren. Azkenean, taldetxo batek egin zuen aurrera. Bertan zeuden, Craddock, Küng, Pedersen, Teunissen eta Moscon. Atzetik erasoia jota, Mathieeu van der Poel eta Matteo Trentinek egin zuten bat eurekin. Beranduago Gorka Izagirre, Skujins eta Betancurrek egin zuten salto, eta aurreko taldea harrapatzekotan egon ziren. Azkenean, Mads Pedersen danimarkarra izan zen Munduko Txapelduna, esprintean. Gorka Izagirre 9.a sartu zen, 1:10era. Meritu handia Izagirrerena. Imanol Erbiti ere proba despeditzea lortu zuen; 44.a sartu zen, 14:58ra.



Gorka Izagirrek lan bikaina egin zuen Mundialetan. ESPAINIAKO FEDERAZIOA

### Izagirre: "Oso gogorra izan da; kontentu nago emaitzarekin"

Mundialeko lasterketa latza izan zela, inork ez du zalantzan jartzen. "Oso gogorra izan da, eta hor ibili gara. Kontentu nago emaitzarekin, inoiz ez naiz Mundial batean horren aurrean egon, baina, bestalde, pena pixka bat ere badut. Izan ere lasterketako une batean, helmugara lehena iritsi den taldean sartzeko aukera izan dut, baina une horretan ezin izan dut. Gero indarrak berreskuratzea ditut eta ongi esprintatzeko indarra izan dut,

baina pena hori geratu zait, mozketan oinarritutako geratu naitzela" aipatu zuen helmugan Gorka Izagirrek.

### Igor Arrieta 49.a

Aurreko osteguneko junior mailako Mundiala jokatu zen Yorkshirren, 148 km gogorreko proba, Richmond eta Harrogate artean. Espainiako selekzioarekin aritu zen Igor Arrieta uharterra. Azkenean Quinn Simmons estatubatuarra izan zen txapelduna, eta Igor Arrieta 49.a sailkatu zen, 16:49ra.

## Zabaleta Codere finalean

**PILOTA** Txapelketak eta udako torneoak kontuan hartuta pilotari onenen rankinga egin da, eta lehen bi atzeleriek eta aurrelariak Masters Codere finala jokatu dute igandean, 17:00etan, Nafarroa Arenan. Zabaletak Altuna III.a izango du bikote, eta Iribarria eta Rezusta arerio. Bestalde, Ezkurdiak eta Zabaletak Saturioko Torneoan galdu zuten Olaizolaren eta Imazen kontra.



ASPE

KLASIKOEN TOPAKETA

## V. KATXARRO EGUNA

URRIAK 12 - BAKAIKU

10:00 - 13:00 KLASIKOEN TOPAKETA.  
11:30 - PARTE HARTZAILEENTZAT LUNTZA.  
12:00 - SAKANATIK IBILBIDEA  
14:30 - BAZNARIA ELKARTEAN

izena eman!  
691 557 448 - 690 825 557  
KATXARROEGUNA@GMAIL.COM



# Ramos eta Olazabal azkarrenak Olatzagutian

**MENDI LASTERKETAK** Aritz Munarriz, helmugan hirugarrena, eta Izaskun Beunza, emakumezkoetan bigarrena, izan ziren 13. Olatzagutia-Urba Mendi Lasterketako lehen sakandarrak. Eguraldia lagun, 138 korrikalarik hartu zuten parte

Larunbatean 13. Olatzagutia-Urba Mendi Lasterketa jokatu zen, Sutegi elkarteak zenbait babesleren laguntzarekin antolatutako proba. Lasterketa herritarragoa izateko iaz hartutako erabakiari jarraiki, aurtengo lasterketa ere 15 km eta 900 metroko desnibel positibokoa izan zen. 138 korrikalarik hartu zuten irteera Olatziko San Migel plazaatik, horietatik 33 sakandarrek, goiz eder eta ikusgarrian, eta gozatu ederra hartu zuten Urbasako paraje ederretan.

Korrikalariek zuzenean Urbasako ipar gailurreriako punturik altuenera jo zuten, Tontorraundira (1.157 m). Bira gorabeheratsua egin zuten ondoren, ekialdera Altsasuko portugainetik (1.150 m), Morterutxora jaitsi (890 m) eta segidan Zelai handitik (1.113 m) Bargainera heldu ziren (1.153 m), atzera ere Morterutxora iristeko. Hortik helmugarako bidea hartu zuten.

## Lasterketa "zoragarria"

Azkarrena Navasfriasko Alvaro Ramos izan zen (1:23:54). Ramosek hasieratik hartu zuen aurrea, baina gero Jon Vegas aguraindarrak aurreratu zion, 13. kilometroan. "Jarraitu diot banekielako eremu laua ongi doakidala. Orduan estutu dut, harrapatu dut, aurreratu naiz eta erritmoa mantendu dut" azaldu zuen Ramosek helmugan. Azkenean, 21 segundo atera zizkion Jon Vegas (1:24:15) eta Aritz Munarriz etxarriarrak osatu zuen podiuma (1:26:19). Jose Luis Beraza uhar-tearra seigarrena sailkatu zen, bigarren beteranoa. Ramos irabazlearen esanetan, Olatziko "lasterketa ederra da". Eta hain zuzen ere Ramosek parte hartu zuen lehendabiziko mendi lasterketa Olatziko izan zen, due-la bost urte. "Buelatzeko ilusioa nuen, eta garaipenarekin, are gehiago. Eguraldi bikaina egin



Abiatu eta berehala Tontorraundira jo zuten korrikalariek.

du eta ikuspegi zoragarriez gozatzeko aukera izan dugu" gaineratu zuen.

Emakumezkoetan, Alizia Olazabal irundarra gailendu zen (1:47:42) Izaskun Beunza olaztiararen aurretik (1:52:12). Haizea Ramirez de Alda altsasuarra hirugarrena iritsi zen (1:52:12). Olazabalek sarritan parte hartu du Olatzagutia-Urba lasterketan eta bertan garaipen batzuk baditu. "Ez dut gogoratzen ere zenbat garaipen ditudan. Lasterketa oso teknikoa da hau, soilik gailurreriaren ondoren egin daiteke korrika. Lasterketa oso polita da" aipatu zuen bukaeran.

Sari ematean txapeldunek trofeoak jaso zituzten, eta saritutako bertako produktuen loteak. Korrikalarien artean ere loteak zozketatu ziren.

## Txikiendako lasterketak

Proba jokatzeko bitartean, haurrentako lasterketak antolatatu zituzten herrian: txikien motortxo lasterketa eta 4-7 urte, 7-10 urte eta 10-13 urte bitarteko lasterketak. Guztira 33 neska-mutiko aritu ziren, festa giroan. Izan ere, San Migel festak ziren Olatzian.

## Sakandarrak

### Gizonak

1. Alvaro Ramos	1:23:54
3. Aritz Munarriz (Etx)	1:26:19
6. J.L. Beraza (Uhar)	1:28:54
10. Jokin Bereziartu (Alts)	1:32:26
14. Raul Audikana (Olaz)	1:36:47
23. Patxi Cano (Alts)	1:40:35
24. Fran Araña (Arb)	1:41:37
29. Mikel Astiz (Ihab)	1:44:18
30. Egoitz Aldaz (Olaz)	1:46:08
33. Asier Estarriaga (Etx)	1:47:03
43. Joseba Galarza (Iturm)	1:50:30
48. Jon Zufiaurre (Etx)	1:51:53
49. Imanol Mendinueta (Arb)	1:52:03
50. Iñaki Lacalle (Olaz)	1:52:10
67. Iñaki Arkauz (Lak)	1:58:24
69. Fermin Zornoza (Olaz)	1:59:16
72. Jon Garasa (Olaz)	2:00:05
73. Asier Ilegi (Arb)	2:01:41
76. Iñaki Camuel (Olaz)	2:03:02
78. Roberto Zornoza (Olaz)	2:04:12
83. Juan Pedro Ariz (Bak)	2:04:52
85. Iban Verdugo (Etx)	2:05:15
86. Iñaki Ganuza (Olaz)	2:05:48
94. Iurgi Flores (Zior)	2:11:28
95. Ruben Izko (Zior)	2:11:28
101. Raul Mendoza (Zior)	2:16:57
102. Juanjo Otsoa (Zior)	2:17:05
110. Javier Camuel (Ola)	2:27:09
117. Pedro J. Zelaia (Arb)	2:52:33

### Emakumeak

37. Alizia Olazabal (Irun)	1:47:42
51. Izaskun Beunza (Olaz)	1:52:12
52. Haizea R. Alda (Alts)	1:52:12
84. Maria Goikoetxea (Etx)	2:05:13
90. Izaskun Agirre (Olaz)	2:08:51
99. Maitane Txueka (Arb)	2:14:17
104. Ainhoa Markinez (Olaz)	2:18:45
106. Silvia Perez (Alts)	2:19:51

## Altsasuko ferietako Onddo Lasterketan izena ematea zabalik


**ATLETISMOA** Urriaren 12an jokatu da proba, baina izena ematea aurretik egitea gomendatu dute

Altsasuko feriekin batera, urriaren 12an, larunbatarekin, jokatu da Onddo Lasterketa, Dantzaleku Sakana Atletismo Taldeak antolatutako lasterketa ez lehiakorra. 6,5 km-ko lasterketa izango da, betiko ibilbidean, beheko basoko paraje zoragarrietan gauzatuko dena, eta helburua besterik gabe parte-hartzea da, korrika egitea, gure inguruneaz gozatzu goiz ederra pasatzea. Izena ematea zabalik dago [www.dantzalekusakana.com](http://www.dantzalekusakana.com) web gunean. Izena ematearen truke, antolakuntzak Josefina Arregi Klinikako Lagunen Elkartearen aldeko dohaintza jasoko du probaren egunean.

Urriaren 12an izanen da Onddo Lasterketa, aurten goizago. Goizeko 10:30ean oinezkoak abiatuko dira eta goizeko 11:00etan, aldiz, proba korrika egingo dutenak. Izan ere, aurten Onddo Lasterketarekin batera antolatutako Ferietako Eskolarteko Krosak 40 urte beteko ditu eta haurren mailako lasterketak atzeratu eta 12:00etan izango dira.

## Ferietako 40. Eskolarteko Krosa

Data berezia du Ferietako 40. Eskolarteko Krosak. Bere kategorian Nafarroako lasterketarik zaharrena dela azaldu digu Dantzaleku Sakana klubeko Peio Bergarak. Onddo Lasterketa bezala, guztiz herrikoia da eta ez da ez sailkapenik ez saririk ematen. Aurten errekonozimendua egin nahi diote txikienen



Proban aritzera animatu dute.

lasterketari eta lehen orduan jokatu beharrean, eguerdian izanen da. "Errekonozimendua egin nahi diegu duela 40 urte probaren antolakuntzan ibili zirenei eta baita ere bertan aritu zirenei, egun 47-52 urte dituztenei. Egun horretan plazara gerturatzeko deia egiten diegu" gaineratu du Bergarak.

## Dantzalekuko junta berriua

Dantzaleku Sakana Atletismo Klubeko zuzendaritza berriua da. Horrela, Iñigo Agirre da presidente berria, Jone Pelaez presidenteordea, Edurne Razkin idazkaria, Jorge Iradi diruzaina eta Josu Martin bokala eta ekipamendu eta jantziez arduratuko dena. Horretaz gain, beste 5 bokal izango ditu juntak: Mikel Goikoetxea, Eusebio Vinagre, Gorka Garcia de Eulate, Aingeru Azazeta eta Peio Bergara.

## MENDI LASTERKETAK

### Katarain bosgarrena Gorbeia Suzien

Munduko korrikalari onenak Zeanurin bildu ziren, Gorbeia Suzien lasterketan (31 km eta 2.300 m. desnibel +). 464 korrikalarik lortu zuten Skyrunning National Series zirkuiturako baliagarria zen proba despeditzea, Aritz Egea (3:07:33) eta Ynguild Kaspersen (3:34:32) buru zirela. Beñat Katarain lakuntzarra 5.a izan zen (3:14:08), bikaina.



Beñat Katarain. UTZITAKOA



# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / [kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

## OSTIRALA 4

**ALTSASU** Altsasuko Gaztetxearen XXIX. urteurrena. Haurren txokoa eta txokolatada; luntxa. 17:00etatik aurrera, plazan eta Gaztetxean.

**ETXARRI ARANATZ** The Upper Room Euskal Gospel taldearen kontzertua. 18:30ean, plazan.

**BAKAIKU** Plan estrategikoaren jarraipen bilera. 19:00etan, udaletxearen goiko aretoan.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, plazan.

**ALTSASU** Altsasuko aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.

**ALTSASU** Nafarroako orkestra sinfonikoaren kontzertua. 20:00etan, lortia kultur gunea.

**ALTSASU** Erase una vez en... Hollywood gaurkotasunezko filmaren emanaldia. 22:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** Altsasuko Gaztetxearen XXIX. urteurrena. Txikiren bakarriketa. EHE taldeak antolatuta. 22:30ean, gaztetxean.

## LARUNBATA 5

**ETXARRI ARANATZ** 12. Mikologia ikastaro teoriko-praktikoa. Irakaslea: Joseba Beloki. Larrañeta mendi taldeak eta Hartzabalgo Mikologia Taldeak antolatuta.

09:00etatik 11:00etara, Larrañeta elkartearen.

**ALTSASU** Altsasu-Irurtzun-Oskoz-Urritza-Altsasu 90 km-tako ibilbidea eginen du Barrankako errepede taldeak. 09:00etan, suhiltzaileen egoitzatik.

**ALTSASU** Altsasuko Gaztetxearen XXIX. urteurrena. Kalderete txapelketa, txupina, jolasak, zunbapoteoa eta Kuadrilen elektrotxaranga. 11:00etatik aurrera, plazan.

**ARBIZU** Udazken-neguko menuaren aurkezpena: Bertso bazkari dastaketa Julio Soto eta Jon Maia bertsolariekin. 14:00etan, Eko kanpinean.

**ALTSASU** Gazte agenda. Irekitze jaia: enbor eroak eta pendulua, musika eta afaria. 17:00etatik 01:00etara, Intxostiapunta gazte txokoa.

**ETXARRI ARANATZ** Zubiak eraiki korapiloak askatzeko. Preso, iheslari, deportatuak etxera! manifestazioa. 20:00etan, plazan.

**ALTSASU** Altsasuko Gaztetxearen XXIX. urteurrena. Magrak eta Ingoaldu? erromeria. 22:00etatik aurrera, gaztetxean.

## IGANDEA 6

**ALTSASU** Mantxoara 48 km-tako irteera eginen du Barranka BTT taldeak. 09:00etan, Urbasako portuan.

**ETXARRI ARANATZ** Feriak: Nafar tortilla txapelketa. 12:15ean, plazan.

**ALTSASU** Erase una vez en...

**Hollywood** gaurkotasunezko filmaren emanaldia. 19:30ean, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** El autor zineforum a. 19:40ean, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 7

**ALTSASU** Pentsio duinen alde. Sakanako Pentsiodunen eta Adinduen Koordinakundea. 12:00etan, plazan.

**ALTSASU** Artebide elkartearen Altsasuko aske inguruko proposamen artistikoa: letanias. 11:00etatik 13:00etara eta 18:30etik 20:30era, lortian.

## ASTEARTEA 8

**ALTSASU** Artebide elkartearen Altsasuko aske inguruko proposamen artistikoa: letanias. 11:00etatik 13:00etara eta 18:30etik 20:30era, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** Lidergo partizipatiboa eta eragina. Enpresendako jardunaldia. 16:00etan, lortia kultur gunean.

## ASTEAZKENA 9

**ALTSASU** Artebide elkartearen Altsasuko aske inguruko proposamen artistikoa: letanias. 11:00etatik 13:00etara eta 18:30etik 20:30era, lortian.

## OSTEGUNA 10

**ALTSASU** El gordo y el flaco zineforum filmaren emanaldia. 19:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** Un verano en Ibiza gaurkotasunezko filmaren emanaldia. 19:00etan, lortia kultur gunean.



**IRURTZUN** Guaixe 25. urteurrena. Guaixe eta Oixe zaharren erakusketa ibiltaria. Urriaren 11ra arte. Astelehenetik ostiralera 14:30etik 20:00etara.

## ZORION AGURRAK



Oihan Gastaminza Betelu  
Gaur 8 urte, zorionak!!!  
Ongi pasa gaurko merendolan!!!




Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • [www.dekovenavarra.com](http://www.dekovenavarra.com)  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU  
Tel./Faxo: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860






ESKERTZA



## Guadalupe Gares Artola



Altsasun hil zen 2019ko irailaren 10ean

"Beti yonko za gu biyotzetan"

Eskerrak eman nahi dizkizuegu une latz hauetan gurekin egon zareten guztioi

**Zure familia**



### ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€ prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek %10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.



## IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU ETXARRI ARANATZ  
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

ESKELA

## Juanita Gastesi Garciandia Timoteo Beraza Goldaracena



"Bizitza osoa elkarrekin eta elkarrekin joan zarete"

Zuen familia  
Irañeta

### JAIOTZAK

- Nahia Ramos Diez, irailaren 17an Altsasun

### EZKONTZAK

- Alvaro Moreno Ochoa de Zuazola eta Maialen Pardo Rodriguez, irailaren 28an Altsasun

### HERIOTZAK

- Juana Gastesi Garciandia, urriaren 1ean Irañetan


INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

### EGURALDIA ASTEBURUAN


#### Ostirala, 4




#### Larunbata, 5



#### Igandea, 6



#### Astelehena, 7



### IRAGARKI SAILKATUAK

#### LANA/NEGOZIOAK

##### LAN ESKAERA

Sakanako emakume eskaldunak bere burua eskaintzen du adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Goizez, arratsaldez edo gauez, baita egun solteak ere. Esperientzia frogagarria. 618 855 249

##### LAN ESKAINTZA

**Etxarri Aranazko Udalak Gaztetokorako begiralea kontratatzeko deialdia zabaldu du:** Lanaldi partziala (asteburuetan) izango da eta soldata C mailakoa. Hautapen prozedura curriculum-en balorazioaren bitartez egingo da. Betebeharrak eta oinarriak [www.etxarriaranatz.eus](http://www.etxarriaranatz.eus) web orrian, udal bulegoan eta Altsasuko Nafarroako Enplegu Zerbitzuan kontsultatu daitezke. Izena emateko epea urriaren 11an, 14:00etan bukatuko da.

#### LEHIAKETAK

**15. KAMERAIOIA Lekeition (Euskal Herriko ikus-entzunezkoen rallya):** Parte hartzeko epea urriaren 23ra arte zabalik <https://irudienea.topagunea.eus/egitasmoak/kameratoia/> webgunean (Lekeitioko aterpetxean egonaldia eta gosaria doan izena ematen duten lehen 30 laguntzat) Gaia urriaren 25ean emango da, grabaketak 26an hasi (Lekeition bertan) eta 27an Ikusgarri zine aretoan aurkeztuko dira. Film labur hoberenarentzat 1000 euro saria, bigarrenarentzat 600 euro eta Publikoaren Saria egongo da ere.

**Instagram BOTABA Euskal Esamoldeen Erroren 3. edizioa:** Gazteentzako lehiaketa aurtentzako berritasunekin eta egundoko sariarekin dator. "Beroketa-fasea" urrian hasiko da nola parte hartu ikasteko. Erroren Azaroaren 4tik 25era izanen da. Labayru Fundazioak antolatuta.

#### IKASTAROKAK

**Bezeroarekiko arreta zerbitzua:** Cederna Garalurrek turismo-sektoreko profesionalen zuzendutako ikastaroa antolatuta du lastailaren 8an eta 10ean, 10:00etatik 13:00etara, dohainik. Izena emateko:

619 328 264 telefonora hots egin edo sakana. [admon@cederna.es](mailto:admon@cederna.es) e-postara idatzi.

**Egile berrientzako Iruñeko Udalen XXIX. Euskarazko Literatur lehiaketa:** parte hartu ahaliko dute nafar egileek edo nafarrak izan gabe, helbidea Nafarroan dutenak. Poesia, Narrazioa eta Bertso-paperak modalitateak. Lan bana modalitate bakoitzeko. Lanak aurkezteko epea 2019ko azaroaren 5ean amaitzen da. Informazio gehiago [www.iruñakultura.eus](http://www.iruñakultura.eus) helbidean.

#### OHARRAK

**Odol-ematek Olaztin:** urriaren 10ean 17:00etatik 20:30ra, [www.adona.es/eu](http://www.adona.es/eu)

**Odol-ematek Irurtzen:** urriaren 7an, 16:45etatik 20:30tara, [www.adona.es/eu](http://www.adona.es/eu)

**Txistor eguneko auzolana:** Arbizuko txistor eguna lastailaren 13an izanen da. Arbizuko Udalak gaztigatu du ospakizuna antolatzeko herritarren lana "oso garrantzitsua" dela. Horregatik, egun horretan auzolanean aritu nahi dutenek udal-txetan, 948 460 017 telefono zenbakian (bulego ordutegian) edo [info@arbizu.eus](mailto:info@arbizu.eus) e-posta helbidearen bidez egin dezakete. Edota zinegotziren bati esan da ere.

**Bakaikuko Udalen informazioa WhatsApp bidez jaso nahi duzu?** Bandoak, udalbatzen aktak, jarduerak, jakinarazpenak eta informazio orokorra, etab jasotzeko deitu edo bidali mezu bat 622 268 161 zenbakira eta informazioa bidaliko dizugu.

**Arakilgo kultur irteera:** Bizkaiko Muuskiz herriko El Pobal eta La Arboleda meategi eta burdinolak ezagutzeko aukera izanen da hilare 26ko txangoan, 10:00etan abiatuta eta 18:30ean buelta eginez. Interesa dutenek hilare 22ra arte eman dezakete

**Nabarmendu zure iragarkia**  
Modulo txikia:  
14,52 euro  
948 564 275

izena udaletxean edo 948 500 101 telefonora hots egin. Arakilen errolatutakoek 25 euro ordaindu beharko dituzte, 12 haurren kasuan eta ibarrean errolatutak ez diren helduek 30 eta 15 haurren kasuan.

**AHT-ko lanetara mendi martxa:** Mugitu! Mugimenduak azaroaren 9 eta 10ean Marcilla eta Tafalla artean AHTaren aurkako mendi marxa bat antolatu du. Helburua parte hartzaileentzako AHTaren proiektua ezagutzeko eta abiatu dituzten lanak bertatik bertara ikustea da. Bestalde, zonaldeko oposizioarekiko harremanak estuztea eta martxak zeharkatuko dituen herrietan informazioa zabaltea da. Argibide gehiago: <http://mugitu.blogspot.com/>

**Aralarko santutegi ondoan dagoen Laguntza txetxearen eraikina zaharberitzeko proiektuan lagundu** nahi duenak ES 2700 754646 93 060 0001691 kontu korrontean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektu denez, dirua ematen dutenei errenta aitortpena egitean zati bat bueltatuko diote.

**Sakana Trenaren alde AHTrik Ez plataformakoak asteartero,** 19:00etan, elkartzen dira. Bilerak Sakanako herri ezberdinetan bandakatu egiten dira. Informazio gehiago "Sakana Tren Sozialaren alde" Facebook profilean.

**Bidelagun izan nahi?** Mintzakide programaren bidez euskara praktikatzera elkartzen dira hizkuntza ikasten ari direnak eta hizketatzeko ohitura dutenak. Euskaldun batekin, bidelagun batekin aritzen dira. Bidelagun izan nahi duzu? 600 482 024 telefonon edo AEKren Itsasi euskaltegiaren bidez informazio guztia guztia.

**Crowdfunding Kanpaina:** Aritz Ganboa de Migel artzain-gaztagile arba-zuarraren erroren parte hartzera gonbidatuta zaude. Arruazutik Izabarraino mendi lasterketa eta gazta trukaketa "Bideak" dokumentalean jasotzeko kanpaina laguntzeko diru bilketa egiten ari dira. Informazioa <http://www.bideakdokumentala.eu/> eu/crowdfunding-kanpaina web-gunean.

[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

# IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

## "Betidanik"

☎ 948 19 70 70  
✉ @Gruporache  
f Gruporache  
🌐 www.tanatoriosirache.es





Sareak proposamen artistikoen laborategian lanean.

## Altsasuko auziaren galderak artearen bidez erantzuten

Arte Azokaren gelaurrean Altsasukoak aske inguruko proposamen artistikoen laborategiak egin ditu Artebidek

### ALTSASU

Zer iradokitzen dute maitasuna, gorrotoa, askatasuna eta justizia hitzek? Galdera hori planteatu zuen Helena Santano artistak *Hautsitako isiltasuna* proposamen artistikoen laborategian. Elkartasunak sortutako "sareak" egi bihurtuko dituzte Reme eta Sagri Mauleonek gidatutako laborategian. Artebide taldeak Altsasuko auzia artearen ikuspuntutik hausnartu nahi izan dute, "modu abstraktuan", artisten sormen prozesuaren parte. Urriaren 18an mustuko duten Arte Azokaren gelaurrea izan da asteotan egin dituzten *Altsasukoak aske inguruko proposamen artistikoen laborategi-dukiontzia*. "Beste kolektiboek gauzak egin dituzte, artistikoki erantzun kolektibo bat eman nahi genuen", azaldu du Helena Santano Artebideko kideak.

Altsasuko VIII. Arte Azoka izanen da urriaren 18tik azaroaren 2ra, Iortian, eta aurten lehenengo aldiz gai bat jarri diote: Altsasuko auzia. "Hasieran jendeari kostatzen zitzaion, orain arte bakoitzak nahi zuena aurkezten zuelako".

### Arte laborategiak

Hitzaren, gorputzaren, mugimenduaren eta literaturaren bidez Altsasuko auzia artearen bidez landu dute asteotan. Laborategietan egindakoarekin artistek Arte Azokan erakutsiko duten lanak sortuko dituzte. "Sormen prozesuaren zati bat da". Gainera, laborategi-dukiontzietan jendearen parte hartzea

eskatzten zuten, lan "kooperatiboak" sortzeko.

Kooperazioa da, hain zuzen, Helena Santanoren "azken aldian" sortzeko modua. Jendeari galderak egitea gustatzen zaio, eta sortutako erantzunekin artelana egiten du. Aurreko asteko *Hautsitako isiltasuna* laborategian maitasuna, gorrotoa, askatasuna eta justizia hitzei buruz galdetu zuen. "Hitz horiek deskontestualizatu ditugu". Zenbait pertsonen ezpainak hitz horiek esaten fotografiatu zituen. Ondoren, soinu polifonikoak sortu zituzten eta hitzak iradokitzen zutena marraztu zuten. "Harrigarria da, baina hitz egin gabe paralelitasunak sortzen dira: esaterako, gorrotoa ustelarekin elkartzen dugu".

*Sareak* laborategia zen Reme eta Sagri Mauleon artisten proposamena, eta helburua elkartasuna irudikatzea izan da, "edozein tokitako zein pentsamoldeko jendea nola elkartu den adieraztea". Hor-taz, elkartasun "hari hori" ikusgai egin dute eta gaur, Altsasukoak aske ostiraletako kontzentrazioan, botako dute. Urriaren 7an, 8an eta 9an letaniak sortuko dituzte Virginia Sargai artistarekin.

Artelan guztiek "zerbait esaten" dute: "Artea politika da, protesta da, iraultzailea, ez da bakarrik estetika". Hala ere, laborategietan "ez da auzia landu, baizik eta auziak nora eramanen zaitu? Orain zer? galdetu dugu". Modu abstraktuan heldu diote gaiari. Izan ere, "artean sinbolikoarekin lan egiten dugu, arrazoitik pasa gabe".

# Gatibu diren pertsona normalen erradiografia

Helena Taberna zinemagile altsasuarrak 'Gatibuak' filma estreinatuko du gaur, urria 4, estatuko hainbat zinema aretotan. Greziako epe luzeko errefuxiatuen istorioak kontatzen ditu film-dokumentalak; "istorio humanoak"

### ALTSASU

Mustutze aurreko urduritasuna ongi darama Helena Taberna zinemagile altsasuarrak, izan ere, *Gatibuak* (Varados) filma Zinemaldiko Zinemira sailean aurkeztu zuen. Lehenengo aldian zen Tabernaren film bat Zinemaldian zegoela, eta "bereziki hunkigarria" izan zela esan du: "zinema areto bat beteta, 700 pertsonen errefuxiatuen istorioak ikusten, istorio horiek bihotzetan sartzen. Isiltasun berezia sortu zen". Eta, filma amaitzean, txaloak. Zinemaldiaren lehenengo su probaren ondoren, filma estatuko aretoetan mustuko dute.

Proiektatzeko lehenengo momentu horretan filma Tabernarena izatetik publikoarena izatera pasatzen dela azaldu du zinemagileak. "Momentu horretara arte zurea da, zu sartu zara, atara zara, muntatu duzu, hau eta bestea aukeratu duzu...". Baina lehenengo aldiz pantaila handian ikusten denean, eta Taberna pantaila handiaren defendatzaile sutsua da, pelikula jendearena da. "Filmak kapaz betetzea gustatzen zait. Lehenengo arrazionala da, logikoagoa. Geroz eta kapa gehiago izan, orduan eta sakontasun gehiago izango du". Filmetan dauden interpretazio hauek, "konturatzeko ez garen gauzetan paratzea" aukera ematen dute. Gainera, erabili duen "erritmoa eta tenpoaren" bidez filmak hausnartzeko aukera ematen du ere, "eta filma ez da ikusteko motela egiten".

Errefuxiatuen gaia komunikabideetan bogan dago. Baina Helena Tabernak ahaztutako errefuxiatuetara jo du bere film-dokumentala egiteko. Oso lan desberdina egin du, izan ere, "boluntariotza lana" egin du bertan. "Baina sukalde batean lagundu beharrean, zinema egin dut, berez nire lana dena". Hor-taz, arreta landu du "komunikabideek arreta jartzen ez duten



Gatibuak filmaren eszena bat. LAMIA PRODUCCIONES

## "BOLUNTARIOTZA EGITERA JOAN NAIZ, BAINA ZINEMAREN BIDEZ EGIN DUT, NIRE LANA DENA"

horietan": egunerokotasunean. Komunikabideak oso azkar eta ikusgarritasunera doazela kritikatu du, eta Greziara iritsi ondoren "ahazten" dituzte: "ez dira albiste, gatibuak direlako". Baina zinemagile altsasuarrari hori zen, hain zuzen, interesatzen zitzaiona. Greziara pentsamendu batekin joan zen: pertsona guztiak berdina dira eta bizi-rauteko indar handia dute. Filmak "bizitza zailak izan arren borrokatzeko ahalmen handia" erakusten du.

Zaporeak GKEk egin zion proposamena, eta zinemagileak "zerbait bisuala" egin nahi zuen, baina ez zekien zer. Film luze bat ateratu da. "Banekien pertsona normaletan arreta jarri nahi nuela, errefuxiatuen eremuetan, etxe okupatuetan eta itsasontzietan iristen diren horietan". Transmittitzen zuten pertsonaia era-

kutsi nahi zituen, "erakusteko zergatik ari garen zinea egiten". Tabernak argitu duenez, film-dokumentala ez da erreportaje bat. "Erreportaje onak egon daitezke, baina ez dira pelikulak". Kontakizunaren eraikuntzan, ahotsetan, tenpoan eta abarretan ikusten da desberdintasuna.

### Protagonistak

Profesionala ez bazara kamera baten aurrean oso zaila da, are gehiago zure bizitza erakutsi behar duzue. "Asko arriskatu behar duzu". Protagonismo osoa "beraia" izatea eta momentu guztiak "mimoarekin" hartu nahi zuen Tabernak. Horretarako, "behatzailea" izan dela azaldu du, baita enpatia handiarekin joan zen ere.

"Momentu oso ederrak egon dira". Taberna konturatu da, boluntario izan den jende gehiena "argi berezi" batekin itzultzen dela. Lan handia egin arren asko disfrutatu duela argitu du. Hor-taz, esperimentatzeko aukera ere izan du, eta kamerarekin gauza berriak probatu ditu. "Adibidez, goian gauden sekuentzian Theo Angelopoulos zuzendari



# "Plazara ateratzea da garrantzitsuena"

Bertsokabi-Eugenio Arraiza sariketaren bigarren edizioan parte hartuko du Ekain Alegre gazte altsasuarrak. Bere bigarren Bertsokabi izanen da, eta Iker Gorosterrazurekin aterako da "plazara". "Egiten dakidana erakustera" doa

## ALTSASU

Bertsokabi-Eugenio Arraiza sariketaren bigarren edizioa hasi zen atzo eta urriaren 24ra arte jokatu da, ostegunero, Iruñeko zenbait tokitan, 15 eta 30 urte bitarteko bertsolari gazteek parte hartzen dute Nafarroako Bertsozale Elkarteak antolatutako sariketan. Horien artean altsasuar bat dago: Ekain Alegre. Bertsolari gazteei trebatzeko eta jendaurrean kantatzeko aukera emateko sortu zuen sariketa hau duela bi urte Nafarroako Bertsozale Elkarteak. Gainera, gazteen artean bertsozaletasuna zabaldu nahi du ere elkarteak.



Ekain Alegre bertsolari gazte altsasuarra. UTZITAKOIA

Ekain Alegre bertsolari gazte altsasuarrak esperientzia du Bertsokabi-Eugenio Arraiza sariketean, izan ere, duela bi urte parte hartu zuen Joanes Illarregirekin batera. Aurten Iker Gorosterrazurekin ariko da, izan ere, Bertsokabin bikoteka aritzen dira bertsolariak. Sariketaren bigarren kanporaketan ariko dira, Iruñeko Zabaldi elkartearen urriaren 10ean, osteguna, 19:00etan. Irati Majuelo eta Alazne Untxalo eta Beñat Astiz eta Amaia Elizagoien bertsolari bikoteekin lehiatuko dira. "Plazara ateratzea da garrantzitsuena, bertsolari gazteok plazara ateratzeko aukera bat da". Ideia "politikoa" dela dio Alegrek.

## Bertso zaletasuna

Etxean "beti" bertsoak entzun izan ditu eta bertsolaritza "gustatzen" zitzaion Alegri, beraz, Zelandi ikastetxean bertsolaritza ikasten ari zirenean, Joxema Leitza irakasle zela, aurrera jarraitzea erabaki zuen. Eskolarteko bertsopaper lehiaketan parte hartu zuen, eta irabazi zuen. Horrek motibazio handiago eman zion. Beraz, bertsoak

serioago hartzea erabaki zuen eta bertso eskolan hasi zen Joxema Leitzarekin. "Jarraitzen saiatzen gara, nahiz eta beti erraza ez izan; orain Altsasun ez gara lehen bezainbeste. Baina gaudenak gustura gaude".

Bertsokabi bezalako "ekintzek eta txapelketek" aukera ematen diete bertsolari gazteei "egiten dakiguna" erakusteko. Plazara ateratzea garrantzitsuena dela dio altsasuarrak: "Saioetan izen handiko bertsolariak egoten dira. Nafarroan badago korronte edo joera bat bertsolari gazteak parte hartzeko, eta gero eta gehiago ari dira sartzen". Plazara ateratzea, beraz, garrantzitsua dela uste du, izan ere, "etorkizuneko bertsolariak izango dira edo gara".

"Gure helburua saio polita egitea eta dugun maila erakustea da. Baita publikoa ongi pasatzea eta gozaraztea ere". Nahiz eta saria egon, izan ere, "motibazioa egon behar da maila ona emateko", garrantzitsuena "bertsolariak egiten duguna" erakustea dela dio Alegrek. Hortaz, puntuazio sistema ohiko txapelketatik aldentzen da: publikoak ere bozkatzen du.

## Euskarazko tertulia literarioak, Altsasuko liburutegian

Hilabetearen behin euskarazko hizketaldi literarioak antolatu ditu Altsasuko liburutegiak lehen aldiz

## ALTSASU

Nobedade bezala, aurten Altsasuko liburutegiak euskarazko hizketaldi literarioak antolatu ditu urriko, azaroko eta abendu-ko asteazken baterako.

## Liburuak

Urriaren 23an, azaroaren 20an eta abenduaren 22an izanen dira hizketaldi literarioak, 18:30ean, eta tertulia bakoitzean liburu bat izanen dute eztabaidagai. Hortaz, hauek dira Altsasuko liburutegiak hizketaldietarako proposatu dituen liburuak: urriaren 23rako, lehenengo hizketaldirako, Fertxu Izquierdo idazlearen Mendeko borroka liburua aukeratu dute. Azaroaren 20an Gotzon Garateren India Harri-garria liburuari buruz hitz egingo dute, eta, azkenik, abenduaren 22an Jose Luis Asensoren Ixa Asap! jorratuko dute.



Altsasuko liburutegia.

Hizketaldi literarioetan parte hartu nahi duenak liburutegian eman behar du izena eta izena ematean tertulietan jorratuko den liburuaren ale bat entregatuko zaio. Hizketaldirako liburua irakurri behar da, tertulian, taldean, eztabaidatu ahal izateko.



BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO

## Tamalez uda joan da eta dagoeneko egunek errutina itxura dute

Gaurkoan ileari buruz hitz egingo dugu. Adinak eta eguzkiak gure ilea asko zakartzen du. Korapiloak geroz eta sakonagoak dira, dirdira galtzen du, zer esanik ez leuntasunari buruz.

Hona hemen trikimailu txiki batzuk hau zaintzeko:

- Lehenik eta behin, gure ilearen egoeraren diagnostikoa on bat egin behar dugu, eta honen arabera xanpu eta maskarilla egoki bat erabili.
- Oporretatik bueltan, ilea tindatu dezakegu? Kolorea udan herdoiltzen da eta laranja kolorekoa bihurtzen da. Hori bai lehenago "reseteo" bat egin behar dugu, gatz eta kloroaren aztarnak baditugu, xahutzeko.
- Zalantzarik gabe, uda eta gero puntak moztu behar ditugu, gutxienez zentimetro

bat eta erdi (hilabete batean hori luzatzen da eta).

- Udan zehar produktu egokiak erabili badira ez dugu tratamendu hidratatze sakon bat erabili behar, baina hau ez badugu bete, bi tratamendu beharrezkoak ditugu: nutritiboa (berreraikitzeko) eta hidratatzea (urez betetzeko).
- Maskarillaren erabilpenari buruz hitz egitean, zalantza handia dago ea urte osoan zehar erabili behar dugun edo soilik txoke tratamendu bat bezala. Ile motaren arabera da, nire kasuan adibidez pentsa ezina da maskarilla ez erabiltzea (ile asko dut eta kizkurra). Beraz, lehenik eta behin gure ilea ezagutu behar dugu.
- Etxean egiteko hainbat trikimailu aipatuko ditut:

- \* Ohera joan baino lehen, maskarilla bat ipini, ilea lehortu eta hurrengo egunean uretan eragin.
- \* Ilea garbitu baino lehen olio begetal bat ipini, film paperarekin tapatu eta handik ratotxo batera ilea garbitu.
- \* Ez dugu soilik ilea zaindu behar, baizik eta buru-azala ere. Etxeko maskarilla batzuk prestatu ditzakegu xanpu eta gatz lodiarekin.
- \* Ilea garbitu ondoren, ur hotza erabili. Horrela dirdiratu ikusiko da gure ilea.
- \* Hau oso oso garrantzitsua da: lehorgailua edo plantxak erabili baino lehen, beroaren babesle bat erabili behar dugu.





Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren kideak. UTZITAKOIA

# "Publikoa da guretako garrantzitsuena, lanari zentzia ematen diona"

**IONE ARRONIZ TRISTAN** NAFARROAKO ORKESTRAKO PROGRAMEN KOORDINATZAILE Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren musika Nafarroa osoan zabaltzea du helburu 'Sinfonikoa Nafarroan' programak. Gaur Altsasun kontzertua egingen du NOSk

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU Nafarroako Orkestra Sinfonikoa Altsasura etorriko da gaur. Kontzertua eskainiko du Iortia kultur gunean, 20:00etan. Sinfonikoa Nafarroan programaren barruan iritsiko da orkestra Altsasura, atzo Atarrabian aritu ondoren. **Zer da Orkestra Sinfoniko bat?** Orkestrak berpizkunde eta barroko garaian sortu ziren. Garai horretan musika taldeak formatu txikikoak ziren. Denborarekin taldeak handitzen joan ziren, gaur egun arte. Orkestra sinfonikoa musika instrumentu joleen talde bat da. Talde honek musika lan sinfonikoak interpretatzen ditu, musika zuzendari baten keinuak jarraituz. Normalean orkestrek aretoetan egiten dituzte kontzertuak. **Bakarrik musika klasiko egiten du?** Orkestra sinfoniko batek ez du musika klasiko bezala ezagutzen

dugunari estuki lotuta zertan egon. Talde sinfoniko batek mota honetako taldeendako sortutako edozein musika mota interpreta dezake, ez du zertan klasiko izan behar. Beraz, edozein musika estilo interpretatu dezake, zinemako soinu bandatik, Rock Sinfonikoa, Pop estiloko taldeen laguntzaileak...

**Zenbat pertonek parte hartzen dute Nafarroako Orkestra Sinfonikoan?**

Gaur egun, talde sinfonikoa 60 pertonek osatzen dute, eta talde teknikoan eta administratioboan zortzi pertsona daude.

**"ORKESTRA SINFONIKO BATEK EZ DU MUSIKA KLASIKOARI ESTUKI LOTUTA ZERTAN EGON"**

Orkestran lan egiten duten pertsona guztiak profesionalak dira. Jardunaldi osoan lan egiten dute, eta kasu gehienetan ez zaie denbora gelditzen beste jarduerak egin ahal izateko. Badira gutxi batzuk orkestrako lana haien instrumentuaren irakaskuntzarekin uztartzen dutenak.

**140 urte bete ditu aurten NSOk. Sasoi onean dago?**

Osasun onean dago, eta, ez hori bakarrik, egunero saiatzen da garatzen eta hobetzen joateko. Gaurko kontzertuan Pablo Urbina nafarra izanen da zuzendaria.

**Zenbat ordu entseatzin dute musikariek?**

Orkestrako musikariek astean batz best 24 ordu entseatzin dute taldean eta 12 ordu inguru bakarka.

**Zer da Sinfonikoa Nafarroan? Nola izan zen sortzen prozesua?**

NOSk Nafarroako txoko guztietara iristeko nahiarekin Sinfonikoa Nafarroan programa martxan jarri zuen. Nafarrei bere orkestraz disfrutatze eta gozatzeko aukera ematen die, haien ohiko kultur espazioetan. Kontzertu hauetan erreperitorio klasiko nagusi da, eta publiko guztietara bideratuta dago. Azken urtetan, programa hasi zenetik, NOSk iparraldetik hegoaldera eta ekialdetik mendebaldera Nafarroa ia osoan eman ditu kontzertuak: Altsasu, Corella, Elizondo, Lizarra, Irunberri, Erriberri, Ribaforada, Erronkari, Orreaga, Zangoza, Tafalla, Tuter eta Viana. Gainera, hainbat kultur ekipamenduak eskaini ditu Iruñerrian. Guztira, 50 bat kontzertu egin dituzte programa honen baitan.

**Nola prestatzen da kontzertu bat? Zer hartzen da kontuan?**

Kontuan hartzen dira bai kontsiderazio artistikoak bai teknikoak. Ardura artistikoak programaren arabeko diseinuaren arabekoak dira; orkestrako kideek interpretatzeko behar dutena, zuzendariaren kontratazioa, bakarlarari zein koruen

laguntza beharrezkoa bada haien kontratazioa, partituren alokairua eta prestaketa eta abar. Teknikoek espazioekin zerikusia dute. Hau guztia kontzertu baikoitzaren publikoaren arabera aztertzen da, guretako garrantziena baita; gure lanari zentzia ematen diona.

**Nolako izango da gaur Altsasun NOSk egingen duen kontzertua?**


Altsasuko kontzertua estruktura tradizionalen kontzertua izanen da. Lehenengo zatian Felix Mendelssohnen Hebridaren lanarekin obertura bat egonen da eta, ondoren, Franz Krommeren sinfonia bat bigarren zatian osatuko dute. Francisco Javier Inglesek klarinete bakarlarria izanen da, orkestraren klarinete bakarlarrietako bat.

**Nolako da orkestraren publikoa?**



Zorionez Nafarroako Sinfonikoak publiko anitza du. Nafarroan musikarekiko interesa oso handia izan da eta, gaur egun, da. Hezkuntza, gizarte eta inklusibo sailetik orkestraren jardura hezkuntza komunitatera zein Nafarroako gizarte orokorrera iristeko proiektuetan lan egiteko konpromisoa hartu dugu.



**Guaixerekin ZIENTZIA tabernetan**



<p>Urriak <b>11</b> ostirala</p> <p>Pikuxar taberna <b>IRURTZUN</b> 19:00</p>	<p>Urriak <b>18</b> ostirala</p> <p>Bargazpi taberna <b>LIZARRAGA</b> 19:00</p>	<p>Urriak <b>24</b> osteguna</p> <p>Clinker taberna <b>OLATZAGUTIA</b> 19:00</p>
---	---	--




# "Kultura modu errazean ezagutarazteko tresna da"

Arkikus deitzen da Arantxa Satrustegi arkitekto arruazuarrak eta bere lankideek sortutako aplikazio elektronikoa, errealitate areagotuaren bidez eraikin historikoen berreraikitze birtuala egiten duen tresna

**Munia El Marhoum Iruretagoiena**  
ARRUAZU

## 1 Zein izan zen arkitektura aukeratzeko arrazoia?

Eragin handia izan zuen gure Arruazuko etxea eraikitzeak. Nire aitaren aldeko familia hemen bizi izan zen, ondoren joan baziren ere. Orain dela 25 urte, nire gurasoek erabaki zuten etxe hau eraikitzea. Gogoratzen dut asko gustatzen zitzaidala planoak ikustea, materialak aukeratzea, eta abar.

## 2 Zer da zure lanaren alderik onena?

Jendea ongi sentitzen den espazioak sortzeko balio duela uste dut, eta horixe da gehien gustuko dudana. Jendea arituko den espazioak sortzen ditugu, haiek disfrutatzen dituzten tokia lortzen dugu. Gure lanaren oinarria hori da hain zuzen. Arkitekto modura egiten dudana jendearen sentsazioetan oinarritzen da.

## 3 Arkitekturan hasi eta ondoren errealitate areagotuarekin lanean hasi zinen. Nolako izan zen jauzia?

Ez da jauzi handirik egon, ditudan proiektuak batera uztartzen ditut



Arantxa Satrustegi arkitekto arruazuarra. MUNIA

eta ez dut saltorik edo aukeratzetik egin behar izan. Arkitektura estudio propio bat izateko ilusioa izan dut eta mutil lagunarekin, Iker Ordoñorekin, hasi nintzen. Azken urte eta erdian estudioaren eta Arkikus-en artean lanean ibili gara.

## 4 Zer da zehazki Arkikus?

Aplikazioak dira, mugikor, tablet edo errealitate areagotuko betaurrekoekin erabili ahal direnak. Toki bat antzina nolakoa izan litzatekeen ikus daiteke, garai desberdinetan zehar: eremu edo eraikin bat bere garai onenean nolakoa zen erakutsi dezakegu. Javier Ordoñok, taldeko arkeologoak, egiten dituen ikerketetan oinarrituta, 3D teknologia erabili berregiteak egiten ditugu.

## 5 Zein alde dago bi arloen artean?

Guretzako errealitate areagotua tresna bat besterik ez da, normalean erabili ohi dugu gure arkitekto lanean, proiektuak irudikatu ahal izateko. Arkikusen, aldiz, lehen eremu bat nolakoa zen erakusteko erabiltzen dugu.

## 6 Nolako izan zen hasiera?

Karrera bukatzean Txilera joan nintzen bizitzera eta Madrilera bueltatzean arkitektura sozialari buruzko master bat egin nuen; arkitekturaren beste ikuspuntu bat. Iker Ordoñok eta Gonzalo Alavak jada egiten zituzten 3D irudiak. Ezagutza hori aprobetxatuz eta ondarearengan genuen interesa konbinatuz sortu zen.

## 7 Nola erabil daiteke aplikazioa?

Mugikorrean edo tablet batean pantaila mugituz, guk sortutako 360º-ko irudiak ikus daitezke. Aplikazioak audioa eta azalpen

testuak ere baditu. Hiru aplikazio daude deskargatzeko: Arkikus Santa Catalina, Arkikus Vitoria 1850 eta Arkikus Castillo de San Vicente. [www.arkikus.es](http://www.arkikus.es)-en azaltzen da dena.

## 8 Zein zen helburua?

Jendeak bidaiatzean, toki txikiagoak bisitatzea, normalean interesatuko ez litzazkieken edo turismoa erakartzeko zailtasun handiagoak dituzten eremuak ezagutaraztea, eta gure aplikazioak horretan laguntzea. Ondare handia dugu, eta ondare hori zabaldu ahal izateko aukera bat sortu nahi izan genuen.

## 9 Nola laguntzen du aplikazioak turismoan eta kulturaren?

Turismoa erakartzeko modu merkeago bat da, aplikazio bat da eta egin behar den inbertsioa ezin da konparatu beste aukera batzuekin. Kontserbatzeko interesa dago, hau da, ondare hori gorde eta mantendu ahal izateko nahia. Aplikazioaren bitartez toki edo monumentu bat jendearentzat erakargarriago egiten da.

## 10 Erabiltzaileendako onura bat da, beraz.

Erabiltzaileen esperientzia hobetzen du. Bisita gidaturik edo azalpen onak jasotzeko aukerarik ez dagoen tokietan Arkikus erabiltza informazio guztia jaso dezakezu, audio-gida bat baita, funtsean. Horrela, bakoitza bere kontura joan daiteke bisita egitera.

## 11 Orain arte zein motatako pertsonak erabiltzen dute?

Egia esan harrirituta geratu gara gure aplikazioaren erabiltzaileekin, izan ere denetarik izan dira. Adin guztietako jendea izan dugu.

## GURE TRESNAK ZURE ESKU

DISEINUA ETA  
KOMUNIKAZIOA